



**Bizilagunak egitasmoak iazko datuak bikoiztu gura ditu aurten: "60 familia lortu gura ditugu"** ▶4

**Zenbait amore desberdin bigarren diskoa argitaratu du Ankenaik, getxoztartutako abeslari donostiarrak; lan berriaz berba egin du** ▶15



# hiruka

Uribe Kostako astekaria



**37. zenbakia**  
2015eko  
azaroaren 5etik  
azaroaren 11ra arte



## Gorlizen, Fauna Basatia

Berreskuratzeko Bizkaiko Zentroak 2.013 animalia jaso ditu 2014tik hona. ▶22-23

# Fauna basatia berreskuratzen

## «Sakonera heldu barik, azalean geratu dira»



### Bizilur erakundeko kide

Maritxu Arroyo eta Miren Saiz ez daude erabat ados Emakume Nekazarien Estatutu Legeagaz.

Elikadura-burujabetza sustatzeko asmoz, Bide Berriak adierazpen artistikoen lehiaketa antolatu du Bizilurrek, EHNE-Bizkaia sindikatuagaz batera. Legebiltzarrak onartutako Emakume Nekazarien Estatutu Legeaz ere berba egin dute Saizek eta Arroyok. ▶16

GEHIGARRI BEREZIA

# GetxOn egin



info +: erdiko 8 orrietan

**Iñaki San Juan** Leioako zinegotzi ohia epaituko dute, De Miguel auzian; inputatuen helegiteak atzera bota dituzte. ▶5

**Erandioko Emakumeen Memoria** kolektiboa Interneten dago irakurgai, bertoko elkarteen ahaleginari esker. ▶7

**Getxoko Manga Jaialdia** izango da aste-akabuan, Areetan. Ekialdeko komikia eta animazioa izango dira nagusi. ▶11

**Olentzeroren etxera txangoak** antolatu ditu Mankomunitateak; azaro barruan egongo da izena emateko aukera. ▶12



Aluzsinatzen

URIZ MORENO AJURIA  
Putza dinostazu,  
txarra balitz legez

«Nire gorputzak eztau bir zure iritzirik!»

**G**uapa, tu culo me está poniendo...», gaztelaniaz, bai, hala oiuhatu zidan atzo gizonetako batek kaletik nindoala. Ezezagun batek nire gorputzari buruzko inolako komentariok egiteari euskaraz 'hitz goxoak' esatea esaten omen zaio, eskatu ez dudana iritzi bat ematea eskertu beharreko keinu ederra bailitzan. Genero indarkeriaren beste adibide bat gehiago baino ez da kale-jazarpenarena: espazio publikoan ere emakumeok objektuak baikina gure itxura fisikoari buruzko edozelako balorazioak jasan behar izaten ditugu. Gainera, eremu ezberdinetan pairatu dezakegun indarkeria sexualari gehitzen zaio: txistuak, begiradak, konnotazio sexualdun keinuak, komentario laido-garriak eta abar pairatu beharra. Gizonak bere domeinu eta boterea erabiltzen eta adierazten du emakumea menderatzeko eta lotsarazteko helburuarekin, erasotzaileak izateaz eurak lotsatu beharko zuketenean. Askotan taldean egiten dute gainera, maiz eremu publikoa bera fisikoki erenganatuz, haien domeinua indartuz eta elkar elikatuz; horrela, emakumeon babesgabetasun bizipena handituz. Ez dut kalean ausart sentitu nahi, aske baizik.

Kuriosoa da jarrera horiei aurre egitean, halako portaera eta komentarioei erantzunez gero, jazarlearen hurrengo jokaldia sarri «puta» deitzea izaten dela. Kuriosoa baino, argigarria. Orduan bai, orduan harro erantzuten diet baietz: izen hori edozein jarrera askatzaile (batez ere sexuala) hartzen dugunean emakumeok gutxiesteko asmoz erabiltzen baitute. Beraz, bai: aske izatea urdanga izatea bada, hala naiz.

Gune publikoan egoteak ez du nire gorputza publiko egiten eta beraz, ez, ez dut zure *piropo-rik* nahi; zor didazun errespetua besterik ez dut gura. ◀

Getxo

# Urbanizatzeko-lanak ordaintzera behartuta



Hezetasunako auzokideek manifestazioa deitu dute hilaren 7rako, zapatua, 11:30etik aurrera, Arene Azpi kaletik hasita.

**Dozenaka auzokidek Iturribarriko urbanizatzeko-lanak ordaintzera behartuko dituztela salatu dute.**

**E**H Bilduk salatu du «Udalak esku pribatuetan» uzten dituela udalerrian aurrera eramaten dabiren hirigintza- eta eraikitze-lanak, eta etxebizitza «negozio espekulatuak» bihurtzeko hautua egin zuela, gainera, duela urte batzuk. Horren aurrean, lan publikoetan

Udalak agente urbanizatuak izan beharko lukeela uste du koalizio abertzaleak. Halaber, Algortako Iturribarri ingurua urbanizatzeko prozesua abiatzeko unean, Udalak hartutako hainbat jarrera salatu ditu EH Bilduk. Prozesu horren espedientea aztertu ondoren, herritar askoren hainbat eskari eta helegite aintzat hartu ez direla ohartarazi dute: «urbanizatzeko-lanak eta ondorengo eraikitze-lanak gauzatzeko eratutako Hitzarmen Batzordeak ez du, inondik inora, ahalbidetu auzokideek uko egin ahal izatea proiektuaren barruan esleitutako partzelen

eskubideei». Azaltzen dutenez, dozena bat auzokidek jasoko dute proiektuaren parte den partzela bat euren lur-sailaren ordaintan, Batzordeak ez dituelako auzokide horien helegiteak aintzat hartu, eta Udal Gobernuak horiei berrespena egin dielako. Hala, auzokideak partzela horien urbanizatzeko-lanak ordaintzera behartuta egongo dira. EH Bilduk gogoratu duenez, Batzordearen %80 enpresa handiek osatzen dute; ondorioz, «Udalak enpresa handien interes pribatuak gailendu» dituela salatu dute koalizio abertzalekoek. ◀

## Martin Deunaren jaiak hartuko ditu Hezetasuna auzoak

**U**dako festen ostean, udagoienera koen ordua heldu da. Eta Getxoko hurrengo hitzordua Algortako Hezetasuna auzora helduko da, azaroaren 6tik 8ra. Egun horietan, Martin Deunaren jaiak ospatuko dituzte, eta aurretan, aurrekoetan ez bezala, karpa eta txosna ipiniko dituzte, Iturgitxiko plazan. Bertan izango dira festen gaueko jarduerak, barbarako kontzertuak eta bakarrizketa; baita zapatuko herri-bazkaria ere. Azaroaren 6an emango diete hasiera jaiak, 17:00etan, txupinarekin jaurtiketaz. Ondoren, pailazoaren ikuskizuna egongo da eta kalejira egingo dute Txikia plazatik abiatuta. Puzgarriak ere egongo dira Arene Azpi kalean, eta abesbatzaren kantaldia,



San Martin de Tours elizan. Gauean, Ganorabacks, Madskins eta Rat-zinger taldeek jarriko diete doinua festei. Zapatuan, berriz, umeentzako jarduerak, kalejira, tiragoma txapelketa, bazkaria, dantzaldiak, bakarrizketa eta erromeria egongo dira, besteak beste. ◀

### Ekitaldi batzuk

#### Azaroak 6, barikua

17:00 Pailazoaren ikuskizuna, Arene Azpin.

20:30 Ganorabacks, Madskins eta Rat-zinger musika-taldearen kontzertua, Iturgitxiko karpan.

#### Azaroak 7, zapatua

10:30 Umeentzako marrazki-lehiaketa.

11:00 Umeentzako jarduerak.

12:00 Tiragoma eta igel-toka txapelketa.

14:30 Herri-bazkaria, Iturgitxiko karpan.

19:00 XXVI. Juanjo G. Mendibil Aurrekulari txapelketa (gizonezkoena bakarrik), Ikastolako patioan.

21:00 Miguel Espejoren bakarrizketa, Iturgitxiko karpan.

23:00 Erromeria Urrats taldeagaz, Iturgitxiko karpan.


#### Otsailak 15, domeka

10:00 XXXVII. Lapiko-txapelketa

11:00 XXXIV. Artisautza-erakusketa.

12:30 Euskal dantzen agerraldia.

## Getxo



Berdintasuna izango da aurtengo edizioaren oinarria.

## Eman Minutu Bat lehiaketa martxan da

Unesco Etxeak «Eman Minutu Bat Giza Eskubideen Alde» ikus-entzunezko lanen nazioarteko lehiaketaren seigarren edizioa abiatu du daborduko, Getxoko Udalaren laguntzagaz.

Aurtengo edizioak berdintasuna hartuko du oinarri; hala, lehiaketa parte hartuko dutenek emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzearen, defendatzearen edo berdintasun-eskubidearen urraketa salatzearen gaineko film laburrak aurkeztu

beharko dituzte. Lehiaketan parte hartu gura duenak aukera izango du izena emateko zein lanak bidaltzeko 2016ko otsailaren 1era arte.

Lehiaketa horren aurreko ekitaldiak munduko hainbat lekutako lanak jaso zituzten, barbarako: Argentina, Kolonbia, Valentzia, Zaragoza eta Madriletik. «Ekin eta Egin» izeneko saria Ibon Markaida getxoztarrak irabazi zuen, *Orain bai, orain ez lanagaz*. ◀

info+: [www.getxo.eus](http://www.getxo.eus)  
[www.dame1minutode.org](http://www.dame1minutode.org)

## Landare-olioa birziklatzeko 54 edukiontzi ipini dituzte

Getxoko Udalak 54 edukiontzi lanjara ipini ditu erabilitako landare-olioa birziklatzeko. Biztanle-dentsitatea kontuan hartuta, Udalak erabaki du edukiontzi bat jartzea 1.500 biztanleko. Erabilitako landare-olioa oso kutsagarria da: litro bat oliok 40.000 litro ur kutsatzen ditu, Aldundiak eta Ur Partzuergoak emandako datuen arabera. ◀

info+: [www.getxo.eus](http://www.getxo.eus)



## Genero ikastaroa, bi egunean, antzerki-jolasen bitartez

Azaroaren 20an eta 21ean, generoaren gaineko tailerra egingo dute Itzubaltzeta/Romoko kultur aretoan. «Gorputza bizi: generoa, maskaren jokoa» izeneko jarduera emakumeei eta gizonei zuzenduta dago. Horretan, parte-hartzaileek sexu bakoitzean genero-rolak zelan adierazten diren eta zelan bizi diren aztertuko dituzte, antzerki-jolasaren bitartez. Ikastaroan,

Teatro Que Madura taldeko Josune Monton eta Laura Lopez ibiliko dira dinamizatzaile.

Tailerra doakoa izango da; bari-kuan, hilaren 20an, 17:30etik 20:30era izango da. Zapatuan, berri, 10:00etatik 14:00etara, eta 15:30etik 18:30era izango da. ◀

harremanetarako: 944 660 136  
[berdintasuna@getxo.net](mailto:berdintasuna@getxo.net)

## Bisitari gehienak madrildarrak eta katalanak izan dira

Getxoko Turismo Bulegoak 33.792 pertsonari eskaini zien arreta aurtengo ekainetik irailera bitartean, ia-zoko epe berean baino %52 gehiago. Abuztuan eta uztailean jaso ziren turista gehien. Jatorriari dagokionez, penintsulatik etorritakoek osatu zuten kopururik handiena (madrildarrak eta katalanak, batez ere); Frantzia eta Erresuma Batutik etorritakoak ere asko izan ziren. EAetik ere bisita nahikotxo jazo zen. Hotelean, batez beste-ko egonaldi luzeena 6 egunekoa izan zen. Bidaiaren motibazioez, %55 aisialdiari lotutako arrazoiengatik izan ziren, eta %45, negozioengatik. ◀

## Itzubaltzeta/Romoko emakumeen urteko bazkaria hilaren 28an

Aurten ere, aurreko 25 urteetan legez, Itzubaltzeta/Romoko emakumeek bazkaria egingo dute: azaroaren 28an. Auzo horretan jaio edo «bertakoak sentitzen» diren emakume guztiak elkartzeko hitzordua dela diote antolatzaileek, «berdin du zein adin duzun, elkartzeko aukeragaz jarraitu nahi dugu, belaunaldi ezberdinetakoak, baina komuneko gauza bat egaz: Romo». Hitzordua hilaren 28an ipini dute, El Chaleten. Bertan parte hartzeko, hilaren 21a baino lehen izena eman beharra dago. Horretarako, 50 euro ordaindu beharko dituzte, Gobelaurre liburutegian. ◀

## Xabier Benitok ordezkatu du Pablo Iglesias Europan

Xabier Benito getxoztarrak ordezkatu du Pablo Iglesias Europako parlamentuan. Podemoseko zerrendetan, 9. postuan aurkeztu zen hauteskundeetara. 27 urte ditu; Gizarte-lanetan tituluduna da; bazterketa arriskuan dauden pertsonakaz behar egin du, eta Podemos Euskadiko Hiritarren Batzordeko kide da. ◀



© AHAL DUGU

## Getxo



German Arantzibia, Lizeth Calderon, Leire Muñoz, Rozio Luces eta Elena Coria, Bizilagunak egitasmoaren antolatzaileetako batzuk.

# «Benetako pertsonak ezagutzeko aukera da»

**Bizilagunak egitasmoaren bazkariak** egingo dituzte azaroaren 22an. Familia «autoktonoak» eta bertakotutako atzerriko familiak batuko dira, elkar ezagutu eta bakoitzaren esperientziak trukatzeko asmoz.

IKER RINCON MORENO ▶

**B**izilagunak ekimenak hirugarren ekitaldia egingo du azaroaren 22an. Egun horretan, familia «autoktonoak» eta bertakotutako atzerriko familiak bazkaltzeko elkartuko dira. Egizu Getxo Euskaldun elkarteak, Getxoko Udalak eta Getxoko Etorrinak Plataformak antolatu dute aipatutako egitasmoa.

**Zer da Bizilagunak?**

Europa mailan egiten den bazkari bat da. Jatorriz bertokoak eta atzerrikoak

diren familiak elkartzen dira, dinamizatzaile batez. Bazkari horregaz, zelanbait elkar ezagutzea eta aurreiritziak amaitzea gura da; benetako pertsonak ezagutzea, bakoitzaren historia kontatzea... Esperientziak trukatzeko, azken finean.

**Zeri erantzuten dio egitasmo horrek?**

Gaur egun dagoen errealitate bati. Jendea mugitzen da, hemendik hara, eta handik hona. Hori horrela, Getxon jatorri ezberdinetako pertsonak bizi gara. Hala, arrotz ez egiteko eta elkar ezagutzeko aukera ematen dute baz-

kari horiek; gaur eguneko errealitatea gertutik ezagutzeko.

**Zelakoa izan da esperientzia?**

Guztiek diote ona izan dela. Horren froga garbia da ia parte-hartzaile guztiek errepikatu nahi izatea. Ondo pasatu zuten, elkar ezagutu... Orain, elkarregaz bazkaldu zuten familiek topo egiten dutenean, ohikoa da po-teak hartzea elkarregaz. Harreman bat sortzen dute elkarregaz, eta lagunak egiten dituzte herrian. Errepikatzen duten familiak hurrengo edizioetan bestelako familiak elkartzen dira

bazkaltzeko; izan ere, onena da ahalik eta jende gehien ezagutzea.

**Azaroaren 22an izango dira bazkari guztiak; zelan antolatuko dituzte?**

Bai, egun berean izango dira Europa mailako bazkari guztiak. European *Nextdoor family* du izena egitasmoak, baina hemen Bizilagunak izenagaz egiten dugu. Herri askotan egingo da bazkaria. Une honetan, horietan parte hartzeko, familien izen-emateak jasotzen gabiltza. Ondoren, eurakaz elkartuko gara euren interesak eta informazioa jasotzeko, gero banaketak egin ahal izateko. Dinamizatzaileak eurek kontaktuan jarriko dira; aurretik ezagutuko dituzte, eta familia bien aurkezpenak egingo dituzte.

Parte hartu nahi dutenek familia hartzaile, gonbidatu edo dinamizatzaile gisa eman dezakete izena. Dinamizatzaileek, halaber, formakuntza txiki bat jasoko dute, egitasmoaren helburuak nolabait ezagutzeko. Berbarako, Egizuk euskararen presentzia bermatu nahi du. Bi familiek elkar ezagutu behar dutenez, batak bestearen kultura ezagutaraztea gura dugu. Atzeritik datozenentzat euskara arrotza izango da. Hala, gura dugu bertokoek kontatzea euskaragaz duten esperientzia, nola bizi duten... Atzerrikoek euskararen mundua gertutik ezagutzeko aukera izatea ere gura dugu.

**Bazkariak egiteaz gainera, Donostian jaialdi bat ere egongo da, ezta?**

Bai, abenduaren 5ean EAEn egitasmo horretan parte hartu duten familiakaz jaialdia egingo dute Victoria Eugenia Antzokian. Bertan, guztiei diploma bat emango zaie, horiek guztiek Bizilagunak proiektuan parte hartu dutela erakusteko.

**Une honetan zenbat familiak eman dute izena?**

Orain arte, 24 familiak eta 10 dinamizatzailek. ◀

izena emateko: [www.getxo.net/bizilagunak](http://www.getxo.net/bizilagunak)

**GetxoGas**

Txartel hau aurkezten baduzu  
**%50eko deskontua**  
izango duzu zure autoaren garbiketari

Getxo eta Berango artean  
Tf. 94 430 15 00  
(15 eguneko epe mugatu)

**KONTXI**  
ZUAZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,  
Pate eta Gaztietan!!

Alangobarri 10, ALGORTA  
Tf. 94 491 02 93

TABERNA  
**Unai**  
JATETXEA

ALGORTAKO ETORBIDEA, 96  
48991 GETXO (BIZKAIA)  
TELF. 944661661  
TABERNAUNAI@HOTMAIL.COM

**PINTXO POTE**  
OSTEGUNETAN  
12:00 ETATIK  
15:00ak ARTE  
Portu Zaharra Bar

**EKIN**  
Jatetxea  
Bolue 4, Algorta - 94.608.04.62

**Egunkariak**  
prentsa eta aldizkariak  
gura izanez gero, etxera eroango dizugu egunkaria!!!  
Algortako Etorbidea 78 - Tf. 94 491 27 34

## Leioa



Mendibile Jauregia kudeatzen zuen enpresa ere ageri da sumarioan. © LEIOAKO UDALA

# Iñaki San Juan epaituko dute

**De Miguel auzian** inputatutakoen helegiteak atzera bota ditu Arabako Lurralde Auzitegiak. Horrenbestez, ahozko epaiketa egingo diete 26 auzipetuei.

**D**e Miguel edo Miñao auzian inputatutako ia lagun denek aurkeztutako helegiteak atzera bota ditu Arabako Lurralde Auzitegiak. Kontuak horrela, ahozko epaiketa egingo diete 26 auziperatuei. Ustez, legez kanpoko komisioak kobratzen zituzten Alfredo de Miguel Arabako EAJko «bigarren» eta foru diputatu ohiak eta Arabako hainbat jeltokide. Horrez gainera, akusatuen artean dago 2000tik 2004ra Leioako Kultura zinegotzi izandako Iñaki San Juan; Mendibile jauregia eta hura kudeatzen zuen sozietatea ere sumarioan agertzen baitira, Errexal (San Juanen enpresa) eta Katia Consultingekin 180.000 euroko zerbitzuak kontratatatu zituztelakoan. Xabier Arza-

lluz EAJko presidente ohiaren semea, Asier, zen Mendibile jauregiaren garai hartako arduraduna. Martxoan, ostera, Roberto Ramos epaileak artxibatu egin zuen Asier Arzallusen kontrako kausa, Miñao auzian.

Denera, 11 delitu egozten dizkiete inputatuei: prebarikazioa, delituak jartzeko beharrari muzin egitea, funtzionario-eroskeria, influentzia-trafikoa, dirua zuritzea, funts publikoak bidegabe erabiltzea, administrazio publikoari iruzur egitea, funtzionario publikoek debekatuta dituzten negozio edo jarduerak egitea, agiri publikoak faltsutzea, Ogasun Publikoaren aurkako delituak, eta konkurtso publikoetan prezioak eraldatzea. Epaiaketaren data ez dute zehaztu. ◀

## Udal zerbitzuen mapa egin dute, paperean eta sarean

**U**dal Zerbitzuen Mapa eta Katalogoa argitaratu dituzte agintari leioztarrek, herritarrei izapideak egiteko erraztasunak emateko. Tresna digitala ere eskuragarri dago. Zerbitzuen mapan zehar nabigatuz, herritarrek udal ekipamendu bakoitza identifikatu ahal izango dute: ekipamenduaren

datu esanguratsuenak (helbidea, telefonoa, erabilerak...) eta bertan egin daitezkeen izapideak; horiek egiteko beharrezkoak diren inprimakiak ere erantsita daude. Mapa, izapide-bilatazaileraren barne, udal webgunean dago, *Udaletxean* izeneko karpetan. ◀

info+: [www.leioa.net](http://www.leioa.net)

## Mila euroko zozketa, bertoko dendetan

**S**abadell Guipuzcoano bankuak *Leioan sinisten dugu* kanpaina jarri du martxan, bertoko merkatariakaz; ekimenagaz bat egin duten saltokietan erosten duten leioztarrak 1.000 euroko zozketan sartuko dira. Hala, azaroaren 30era arte egiten den erosketa bakoitzeko aukera bat edukiko dute bezeroek, dendetan ipini diren ontzietan datuak sartuz gero. Bide batez, Sabadell Guipuzcoanok beste 1.000 euro zozketatuko ditu merkatarien artean. Gainera, Mariscalek diseinatutako poltsa ekologikoak banatuko ditu bankuak, Jose Ramon Aketxe plazako bulegoan. Zozketak abenduaren 15ean eta 20an izango dira; ehun denda inguruk bat egin dute ekimenagaz. ◀

## Udal aurrekontu parte-hartzaileak

**E**H Bilduk Udala Gobernuari eskatu dio prozesu parte-hartzaile baten bitartez diseina ditzatela aurrekontuak; eguenean (azaroak 5) izango den osoko bilkuran eztabaidatuko dute koalizio abertzaleak aurkeztutako mozioa. Besteak beste, leioztarrak, herriko elkarteak eta kirol-taldeak Udalaren egoera ekonomikoaz informatzeko konpromisoa hartzea eskatu diete ezkertiarrek agintariei; baita horiek denek egin dezaketzen proposamen zehatzak jasotzea ere. Bestalde, 250.000 euroko partida esleitzea gura du EH Bildu koalizioak, leioztarrek herri-konsulta baten bitartez aukeratu-tako proiektu bat edo hainbat proiektu garatzeko asmoz. ◀

ArteDramak aurkezten du

# ETXEKOAK

HUTS TEATROA

ZUZENDARIA: ANDER LIPUS  
IDAZLEA: JON GEREDIAGA

JAVIER BARANDIARAN  
MAIKA ETXEKOPAR  
KRISTIANE ETXALUZ  
ANDER LIPUS

AZAROAREN  
20AN  
20:30EAN  
KULTUR  
LEIOAN

[www.etxeokak.eus](http://www.etxeokak.eus)  
info@artedrama.com

## Kalitatezko irakaskuntza euskaraz



0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.  
Ingelesa 4 urtetik. Frantsesa DBHn.  
Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.  
Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.  
Ikastolen Elkarteko Leioako Ikastola bakarra.

Deitu eta informa zaitez!

Tlf. 94 464 23 64 - 94 464 33 07

Artaza auzoa 84 (LEIOA)  
info@betikoikastola.net [www.betikoikastola.net](http://www.betikoikastola.net)



Erandoio

# «Indarkeria matxista» gaitzetsi du Udalbatzak, aho batez

**Azaroaren 25aren atarian,** Erandioko Udalak emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztera deitu du.

Urtero legez, Emakumeen Aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Egunaren harira, adierazpen instituzionala onartu du Erandioko Udalak, talde politiko denek aldeko jarrera agertuz. Aurten, Almudena Matarranzen hilketak markatu du testuaren norabidea. Izan ere, Matarranz ustez bikotekideak hil zuela zabaldu ostean, Erandioko Udalak praktikan ipini zuen Euskal Herriko Emakumeen Martxak iradokitako protokoloa, lehenengo aldiz.

## Sei konpromiso

Erandioko Udalak sei konpromiso hartu ditu «udal politika aktiboa, integrala eta koordinatua garatzeko, tratu onen eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde». Lehenengo da Emakumeen Mundu Martxak onartutako «biolentzia matxistari aurre egiteko protokoloa geure egitea», eta «Emakunde argitaratutako protokoloarekin bateragarria» da.

Bigarren neurria Emakumeen Udakontseilua «indartzen jarraitzea» da. Hirugarren puntuan, Udalak agindu



Almudena Matarranzen hilketa salatzeako manifestazioa.

du «herrian berdintasunaren aldeko borroka indartuko duen» diru-kopurua ezartzea 2016ko aurrekontuetan. Era berean, hezkuntza-eragileei eskatu diete genero-berdintasuna curriculum-lerroetan lantzea.

Bosgarren puntuan, herritarrei gonbit egin diete «pertsonek eta kolektiboek har ditzaten berdintasunaren aldeko konpromisoa» urteko egun denetan, eta azaroaren 25eko zein Bel-dur barik ekimeneko ekitaldietan parte har dezaten. Azkenik, Udalak bat egin du azaroaren 25erako mugimendu feministak deitu dituen mobiliza-

zioakaz, eta haietara joatera ere deitu du.

## Balorazioak

Joseba Goikouria Zarraga alkateak aintzat hartu zuen agiria idazteko orduan talde politiko denek «egindako ahalegina» eta «eskuzabaltasuna», ideologia ezberdinak izan arren «adostasunera heltzeko».

Bide beretik, Rafa Vaquero Gonzalez Ganemos Erandioko bozeramailea pozik agertu zen adierazpena lantzeko prozesuagatik, eta Udalbatzaren funtzionamendua «hobetzen dabile-

lako seinaleztat» jo zuen. Era berean, eskertu zuen testuan «gaitzespen irmoa» egitea, «herrian zabalduko hainbat zurrumurru isilarazteko».

Ana Crespo Hurtado EH Bilduren eledunak, ordea, aldeko eta kontrako iritzia tartekatu zituen, agiriaren balorazioa egitean. Bere esanetan, «urtero egiten dugu» azaroaren 25erako adierazpena, eta «batzuetan, hitz berberakaz, gainera». Kontuak hala, Crespok kritikatu zuen Udalbatzak onartutako testuen «hitz handi horiek ezerezean geratzen» direla, eta udaletxean bertan «erasoak eta arazoak» badirela salatatu zuen. Besteak beste, udaltzain bati espedientea ireki zion Udalak, iaz emakumezkoen komunean sakelako telefono bategaz lankide bat biluzik grabatzeagatik. Bizkaiko Lurralde Auzitegiak kalte-ordaina eta isuna ordaintzera zigortu zuen. Aldekoen artean, Crespok azpimarratu zuen lehenengo aldiz erabili duela Erandioko Udalak «indarkeria matxista» esamoldea, eta «garrantzitsutzat» jo zuen «gauzei dagokien izena ematea». Kontrako aldean, 'feminismo' hitza faltan izan zuen, parekidetasunean bidean beste pauso bat litzatekeelakoan.

Bestalde, EH Bildurentzat «adierazpena baino, askoz garrantzitsua da urtean zehar egiten dena» eta, hortaz, konpromisoa hartu zuen adierazpen gehiago ez onartzeko, aurtengoa urtean zehar bete ezean. ◀

## Gaztetxoak paintball egitera joango dira Zornotzara

Erandioko Kilkirtxu Gaztetxoak taldeak irteera egingo du zapatuan, azaroaren 7an. Egun horretan, Zornotzara joan eta paintball-ean egingo dute. Nagusienek elkarri margoa botatzeko aukera izango dute. Izan ere, zapatuan talde bi egingo dituzte. Lehenengoan, bost eta zazpi urte bitarteko gaztetxoak batuko dira, Zornotza zeharkatu eta hainbat jolas egiteko. Bigarren multzoa zortzi eta hamasei urte bitartekoena izango da. Horiek bai, horiek pintura-gerra egiteko aukera izango dute. Izena aurretik eman beharra dago, eta irteera egiteko zenbatekoa, ordaindu. Txikienen kasuan, zazpi euro izango dira, eta paintball-erako, ordea, hogei. ◀

## Hautesle-errola ikusgai dago, astelehenera arte

Datorren abenduaren 20an, Espainiako Kongresuko eta Senatuko hauteskundeak izango dira. Hori dela-eta, Espainiako Estatistika Institutuak bozketa horietarako hautesle-errola prestatu du, eta Erandioko Udalak erandioztarren errola hori publiko egin du, legeak agindu legez. Bozkatzeko eskubidea bermatuta duten edo dagokien hauteskunde-zentroa zein den jakin gura duten erandioztarrek astelehena izango dute hori egiteko azken eguna. Zerrendak ikus daitezke udaletxeko Idazkaritza Nagusian zein Astrabuduko Mezo kaleko udal bulegoan, goizeko 09:00etatik 14:00etara. Erreklamazioen bat egiteko ere astelehena dute azken eguna. ◀

## Berbalagunak minak astintzen hasi dira daborduko

Pasa den barikuan, Berbalagun ekimena aurkeztu zuten Astrabuduan, mintzapraktika egin gura duten lagunek izena eman dezaten. Kalejiran irten ziren kaleetatik, trikiti-doinuak alaituta. Izan ere, Leire Hernandezek azaldu duenez, «normalean, berbalagun-taldeak taberna barruan batzen dira, eta kalean euskara ez da gehiegi sumatzen. Horregatik, gaurkoan euskara kalera atera gura izan dugu». Hernandez Berbalagun ekimeneko dinamizatzailea da, eta aurtengoa bere 3. urtea da. Pasa den ikasturtean, 50 bat lagun batu ziren elkarrengatik euskaraz berba egiteko. Aurten, oraingoz, hiru talde osatu dituzte (16 pertsona), eta beste 5 lagun zain daude. Hala ere,



edozein unetan eman daitekeenez izena, iazko marka gaintzea espero dute. Gurasolagunak eta dantzari-taldea ere atera gura dituzte. Azaroaren 20an, bertso musikatuak izango dituzte, eta hilaren 22an, berba-txangoa. ◀

info+: [berbalagunerandio@gmail.com](mailto:berbalagunerandio@gmail.com)

Erandoio

# Emakumeen memoria historikoa zabaldu gura dute

**Erandioko emakumeen memoria** kolektiboa batzen ahalegin handia egin dute aurten udalerriko emakume-elkarteek. Liburu Interneten ipini dute denon eskura.

**P**asa den uztailaren 10ean, Erandioko emakumeen elkar-teeek eta Berdintasun Zerbitzuak aurkeztu zuten *Memoria historica colectiva de las mujeres del municipio de Erandio* liburua. Uda ostean, Internetarako jauzia egin dute, Erandioko andreen lekukotza sarean ere ikusgarri izan dadin.

Erandioko Berdintasun Zerbitzuko kideek azaldu dutenez, liburua *Erandioko Emakumeen Memoria Historiko Kolektiboa* izeneko proiektuaren barruan dago. Ekimen hori aurten abiarazi dute, modu parte-hartzailean, udalerriko hiru emakume elkarten bultzadari esker jaio zen-eta. Inguruko emakumeen memoria ikertzea gura zuten Altagako Emakumeen Elkar-teeak, Astrabuduako Emakumeen Elkar-teeak eta Erandiogoikoko Dama-txoak Emakumeen Elkar-teeak. Iraganeko testigantzak batzuek helburu sendoa zeukan: udalerraren historia euren ahotsetatik eraikitzea. Horretarako, bidaia-lagun izan dute Erandioko Udalaren Berdintasun Zerbitzua.

Landa-lana egiteko hainbat hilabete eman zituzten elkarteetako kideek. Denbora horretan, Erandioko emakumeak elkarriketatu zituzten, tal-

deka eta bakarkako berbaldietan, eta hamaika gai jorratu zituzten: familia, harremanak, garaiko testuinguru politiko eta soziala, erlijioa, ohiturak, arropa, auzoko bizitza, eskola, lan produktiboa zein erreproduktiboa, gerra garaia, diktadura, euskara eta abar. Lekukotza horiek denak aipatutako liburuan batu zituzten. Horren aurkezpena ere, modu parte-hartzailean egin zuten, lanaren sorkuntzan parte hartu zuten emakumeakaz batera.

## Agiri eta historia ofizialetik kanpo

Denera, hainbat adin-tartetako 50 emakumek eman zuten euren lekukotasuna. Eskarmentaturik handiena Rosa Uriagereka Beikak izan zuen; 1927an, Leioan jaio zen. Gazteena, ordea, Nieves Curros Seijo izan zen, 1961ean Coruñan sortutakoa.

Erandioko Berdintasun Zerbitzutik nabarmendu gura izan dute «proiektu horretan emakumeen elkar-teeek egin duten lana. Euren bitartez lortu dira emakumeen kontaktuak eta bazkide askok ere parte hartzea talde eta bakarkako elkarriketetan». Era berean, «oso eskertzekoa» iruditu zaie «proiektu honi eskaini dioten denbora eta eskuzabaltasuna. Eurei esker, Erandioko



Liburuak dakarren irudietako bat, pasa den mendekoa. © ERANDIOKO BERDINTASUN ZERBITZUA

udalerraren ikuspegi berri bat lortu dugu. Izan ere, emakumeen bizi-penak, sarri, dokumentu ofizialetatik kanpo lotu dira, eta ekimen horren bitartez, aurrerapauso bat eman da emakumeen ikusgarritasuna eta errekonozimendua lortzerako bidean».

## Lekukotasunak

Liburuan mota denetako aipuak topa daitezke, batzuk umoretsuak, beste batzuk kritikoa, baina beti andre bakoitzak bizi izandako lekukotasunetik. Adibidez, eskolaren gainean honakoa irakur daiteke: «Ikastetxeko

nire oroitzapenak ez dira txarrak, be-soa more izaten nebala kenduta, euskaraz berba egiteagatik egiten zizkidaten txatxamurrak zirela-eta. Euskaraz besterik ez nekien, eta eskolan ez gintuzten berba egiten uzten». Beste ildo batetik, honen berri ere eman digute: «Ni [eskola] publikora joan nintzen, baina 13 urteaz Bilbon zerbitzatzen hasi nintzen, eta, beraz, gutxi ikasi nuen: lau arauak, eta doi-doi. Eskua luzatuta sartu behar nuen eskolara, ezer egin barik. Asko jotzen ninduten, lar, eta motibo barik». ◀

info+: [Ttiki.com/342498](http://Ttiki.com/342498)



**Mugarriek tinko diraute.** Udalbatzako kideek egiaztatu dute Erandioko mugak zaintzen dituzten harriak euren lekuetan segitzen dutela. Urriaren 25ean egin zuten ibilbidea: Leioa, Getxo, Berango, Urdu-liz, Laukiz, Loiu, Sondika eta Bilboko mugetan 9 mugarri aztertu zituzten.

## San Jose auzoko kulunkak auzokideek aukeratuko dituzte

**E**randiogoikoko San Jose auzoan Eipiniko diren zabu eta kulunkak aukeratuko dituzte bertako auzotarrak. Horrela azaldu zuen pasa den Udalbatzan Egoitz Bilbao Bordegarai Hirigintza, Ingurumen eta Lan eta Zerbitzuetarako zinegotzi jeltzaleak, Margarita Vicente Calzada Ganemos Erandioko zinegotziak galdetuta.

Zehazki, neurri hori aurreko legegaldian onartu zuen EAJk bakarrik osatutako Erandioko Udal Gobernuak. Alderdi Popularrak eskatutako baldintzetako bat izan zen, 2015erako aurrekontuak aurrera ateratzeko negoziatioetan. Orduan, 37.000 bat euro finkatu zituzten San Jose auzoko parkean haur-jolasak ipintzeko. Halere,

aurtengo apirilean, Aiala Eguiluz Rodriguez popularren bozeramaileak Udalbatzan eskatu zuen agindutako hainbat neurri aurrera eroatea, tartean Erandiogoikoko San Jose auzoko haur-parkearena.

Baina haur-jolasak ez daude oraindino San Jose auzoan. Bilbaok argitu zuenez, auzo osoa hartuta duen hirigintza-proiektuagatik dela-eta. Obra osoak milioi bi euroko aurrekontua dauka, eta zabuak, kulunkak eta bes-telako jolasak seigarren fasean ipiniko dituzte. Hala ere, hori egin aurretik, Erandioko Udal Gobernuak auzokideei agindu zien parte-hartze programa ipiniko duela martxan, jolasak euren aukera ditzaten. ◀

## Sopela

**Zatoz Izenaduba basoa ezagutzera, abenduaren 11n**

Umeentzako zein helduentzako irteera antolatu du Euskara Zerbitzuak Izenaduba basoa ezagutzeko. Abenduaren 11n, barikua, egingo da txangoa (Urgitxietako geltokian, 17:20an ipini dute hitzordua, eta Sopedako Elizan, 17:25ean). Joateko, 8 euro ordaindu beharra dago, eta izena emateko epea ondokoa da: azaroaren 9tik 15era (Sopelan erroldatuta dauenak), eta azaroaren 16tik 22ra (Sopelan erroldatuta ez daudenak). Horretarako, hainbat bide dago: posta elektronikoz (euskera4@uribekosta.org), SMS edo WhatsApp bitartez (688 654 773 zenbakia); izen-abizenak, adina, emaila, telefono-zenbakia eta geltokia adierazita. Mankomunitateko bulegoan ere egin daiteke (Gatzarriñe, 4). Adingabeek arduradun batez joan beharko dute, eta pertsona bakoitzeko, gehiezin ere lau sarrera salduko dira. ◀

info +: [www.uribekosta.org](http://www.uribekosta.org)

**Itzartu elkartearen zinema-zikloa eta berbaldia**

Itzartu emakumeen elkarteak ekimen bi antolatu ditu datozen egunotarako. Batetik, hitzaldia egingo du azaroaren 5ean; bestetik, pelikula bat emango du Genero Ikuspegiko Zinema zikloaren barruan, azaroaren 12an; biak ala biak eguenak. Hitzaldiaren izenburua ondokoa da: *Palabras de mujer*. Elkartearen lokalean izango da, 18:00etan. Bestalde, Genero Ikuspegiko Zinema ziklo ezagunagaz jarraituko du Itzartuk; urtea amaitu aurretik emanaldi gutxi falta bada ere, oraindino badago eskaintzarik: azaroaren 12an *El Cuarteto* filma ikusi ahalko da, Kurtzio kultur etxean, 18:00etan. ◀

info +: [www.sopela.eus](http://www.sopela.eus)

**«Anai bano hobeto geratzeagaz, nahikoa»**

Dani eta Wiso Lopez Urbina dira Pepetxinen semeak. Haren omenez egingo da Putxera Eguna zapatu honetan, seigarrenez. Urterik urte gero eta sukaldari gehiago batzen da Sopedara.

**Daborduko, seigarren Putxera Eguna!** Lehen urtean, 50 putxera inguru aurkeztu ziren, eta iaz, ehundik gora. Bartzuk sari bila datoz, baina herrikook lehia sana daukagu. Gu bion artean ere badaukagu lehiarik.

**Egun berezia izango da zuentzat, nondik dator putxera lehiaketa?**

Aitaren omenezko txapelketa izanda, pentsa! Aitaren kuadrillakoek antolatzen dute. Gure aitak sukaldaritzaren txapelketetan parte hartzen zuen, azken urteetan putxeretan batez ere. Gainera, gero eta jende gehiago dator; aitak ikusiko balu! Hunkigarria da. Eskerrak eman behar dizkiogu jende askori, Sopedatik jende asko inplikatzeko: bere lagunak, Udala, tabernak eta parte-hartzaileak. Eta hori oso ondo dago. Lagun asko kanpotik dator, berbarako, Balmasedatik. Baina hemen, ez zegoen putxerarako ohiturarik, bizpahiru pertsonak bakarrik egiten zuten. Bat-batean, lehiaketa antolatu, eta hainbestek parte hartzea itzela da.

**Zer behar du putxera on batek?**

Denbora, indabak lasai egin daitezen. Bestalde, lehengai eta produktu onak. Sua ondo kontrolatu...

**Saria lortzea gero eta zailagoa da, baina zuek hainbatetan lortu duzue.**

Odolean daramagulako... Zaila da,



Dani eta Wiso Lopez Urbina.

baina, azkenean, gakoa da produktu onak edukitzea, eta praktikatzea. Gure kasuan, batek besteak baino postu hobea lortzeagaz nahikoa daukagu; urte osorako pozik... Kontua zera da: lagunekin elkartzea, barre egitea eta egun polita igarotzea. Urte barruan, oso gutxitan elkartzen gara-eta lagun den-denak. Badago jendea lehiara datorrena, putxera egin eta badoana. Sopedakoentzat, aldiz, desberdina da; izan ere, herriko jaietatik Gabonetara ez dago bestelako jaialdirik. Gainera, eguraldia freskatuz doa, eta indabak ondo sartzen zaizkigu.

**Herri osoarentzako egun berezia izatea lortu da urte gutxian?**

Bai, guretzat, sinbolikoa ere bada. Egun polita da guztientzat, herritar denak inplikatzeko dira, eta ekarpena egiten diote Putxera Egunari. Merkatariak

ere inplikatzeko dira; taberna gehienek diruz laguntzen dute ekimena, dendeke ohi baino beranduago arte zabalitzen dute... Eta eurentzat ere onuragarria da lehiaketa; izan ere, egun horretan, erosketak herriko dendetan egin ohi ditugu. Gainera, kuadrillak herriko barreiatzen dira, edozein txokotan topatuko duzu kuadrillaren bat putxera egiten, herri osora zabalitzen da jai. Udalak ere laguntzen du: karpia ipintzen du, sariekin laguntzen du... Gu biontzat, maila pertsonalean, egun garrantzitsua da; baina herri mailan ere, uste dut oso ona dela; guztiek lortzen dute nolabaiteko saria. Kanpotar asko ere etortzen da, eta Sopela ezagutzera emateko aukera ona da. Agian, zapatua izanda, gauean kontzerturen bat antolatuko balitz, lehiaketa amaitutakoan gazteak Sopedan geratzeko lirateke; ondo legoke. ◀

**Hautzaindegitik batxilergora arteko eskaintza**

Gatzarriñe bidea 47, Sopela  
Tfnoa.: 94 676 02 66 / 689 01 04 28

[info@anderdeuna.eus](mailto:info@anderdeuna.eus)

[www.anderdeunaikastola.eus](http://www.anderdeunaikastola.eus)



**DIDAK**  
**hamilton**  
**IDIOMAS**  
Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 SOPELA  
TF: 94 676 30 12  
[info@didakhamilton.com](mailto:info@didakhamilton.com)

**COMERCIAL de LIMPIEZA VILLAR S.A.**  
**Harritzeko moduko kalitatea!**

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industriala
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea
- Lan osogarria

Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo)  
Tf. 94 470 06 69 e-posta: [bilbao@limpiezavillar.com](mailto:bilbao@limpiezavillar.com)



## Plentzia

**Udalak argiteriako fakturan %12 aurreztu du: 24.000 euro**

Plentziako Udalak 24.000 euro aurreztu ditu argiteriako fakturan; hau da, iazko kostuaren %12. Horretarako, 2014ko urrian martxan jarritako proiektuagaz, 43 kontratu berrikusi dituzte guztira: 13 argiteri publikoak, eta 30 eraikinetakoak. Halaber, 13 ekintza burutu dituzte. Horretarako, Esetek Smart Energy, S.L. enpresak ikertu du hiribilduko kontratazio elektrikoak, kostuak ahalik eta gehien murrizteko, baina inolako inbertsioa egin barik. Hala, «kontratazioak benetako beharizanetara egokituz», murriztu dute kostua. Proiektuaren hurrengo fasea hastear dago; horregaz, auditoria energetikoak eta jarraipenak egin eta kontsumoak aztertuko dituzte. Horretarako, software zehatza erabiliko dutela adierazi dute. ◀

**Umeei begirako Gabonetarako jarduerak, prest**

Hilabete eta erdi eskas falta da Gabonetako ospakizunetarako. Bazkariak, opariak, aisialdia edo oporrak. Horri begira, Plentziako Udalak bertako ume eta gaztetxoentzako askotariko egitaraua antolatu du; iragarri dutenez, hainbat aisialdi-ekintzatan parte hartzeko aukera izango dute neska-mutiek. Horretarako, alde zuzenetik izena eman beharko dute, hilaren 13a baino lehen, Goñi Portalean. Lekuen zozketa egingo dute gero, azaroaren 20an, barikuan, 17:30ean Goñi Portalean bertan ere. Behin-behineko zerrenda azaroaren 25etik aurrera egongo da ikusgai; erreklamazioak hilaren 27an egin ahal izango dira, azaroaren 30erako behin betiko zerrenda aurkeztu ahal izateko. ◀

info+: [www.plentzia.org](http://www.plentzia.org)

Auzora sartzeko bidegurutzeari «arriskutsua» dela salatu dute, besteak beste.

**Saratxagara bisitan, proposamen bila**

**Gobernu Taldeak Saratxaga** auzoa bisitatu du, bertoko auzokideen eskaerak jasotzeko.

Irail akabuan, Plentziako Gobernu Taldeko lau kidek Saratxaga auzoa bisitatu zuten, eta bertoko auzokoez batu ziren, euren eskaerak eta proposamenak aurrez aurre jasotzeko. Bertokoen arabera, Udalak «ahaztuta» du auzoa; hori dela-eta, lehenengo bisita hori harreman hobe baten abiapuntua izango dela azaldu dute.

Auzora heldu eta jasotako lehenengo kezak hondakin handien bilketagaz zuen zerikusia. Izan ere, jakinarazitakoaren arabera, ohikoa da edukiontzien ondoan hondakinak pilatzea. Hala, horren berri eman zioten bilketa-zerbitzuari, handik pasa zitezkeen; hondakin handiak eguztaztenetan jasoko dira. Halaber, kaleko argiteria hondatuta aurkitu zuten. «Nahiko berriak izan arren, keinuka ari dira jarri

zirenetik», azaldu dute; daborduko, mantentze-zerbitzuak horiek konpondu ditu. Uren hornikuntzako sarean, matxura ere aurkitu zuten. Jakinarazi dutenaren arabera, «etengabe» matxuratzen da, eta matxura horietako bat konpondu arren, handik metro gutxira beste bat dago. Udaltzaingogaz lankidetzara ere eskatu zuten bertokoez, auzora egiten dituzten bisitetan aurkitzen dituzten matxura eta gorabeherak jasotzeko. Hala ere, Udalak jakinarazi duenez, udaltzainek halako lanak egin izan dituzte orain arte. Era berean, Saratxagako garagardotegiaren inguruko edukiontzien eremuan, hormigoizko zolarri txukuna eskatu dute. BI-4155 foru-errepidearen auzora sartzeko bidegurutzeari arriskutsua dela salatu dute, «errepide bazterrek garbitzen ez direlako». Horren aurrean, mantentze-lanak sarriago egiteko eskatu du Udalak. Era berean, estolda-zuloak garbitzea eskatu zuten, besteak beste. ◀

info+: [www.plentzia.org](http://www.plentzia.org)

## Urduliz

**Eusko Legebiltzarrak ospitaleaz eztabaidatuko du**

Urdulizko ospitalearen gaineko legez besteko proposamen bat eztabaidatuko da, datozen asteotan, Eusko Legebiltzarreko Osasun eta Kontsumo Batzordean. Testua EH Bilduk eta PSE-EEK aurkeztu dute, batera. Biek ala biek euren kezka agertu dute «osasun-jardueraren kudeaketak urratsez urrats pribatizazio joera argia» duela koan. Hori dela eta, hiru neurri hartzea eskatu diote Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailari: Legebiltzarrari ospita-

le berriaren Plan Funtzionala eta Zerbitzu Zorroari buruzko «informazio eguneratua» ematea; «Giza Baliabideen Zuzendaritzak eskuartean daukan dotazio eta bideratutako lanpostuen horniketari buruzko datuak» sindikatuari eskaintzea eta lan-arloko gai denak eurakaz negoziatzea; azkenik, Urdulizko ospitalean «eskainiko diren zerbitzu guztiak zuzenean Osakidetzak kudea ditzala, garbikuntza, mantentze-lana eta sukaldea barne». ◀

## Barrika

**Tailerrak: literaturaz, eta eguberriko txartelak egiteko**

Literatur tailerra egingo dute hilaren 4an.

Udagoieneko agenda kulturalari jarraituz, ludoteka zabalik egongo da barikuro, 17:30etik 19:00etara, liburategian. Horrez gainera, irakurzetatasuna bultzatzeko Literatura Tailerra egingo dute hilaren 4an, eguaztena, li-

burutegian bertan. Horretarako hitzordua arrastiko 17:30ean ipini dute, eta 19:00etara arte luzatuko da.

Halaber, Gabonak ate joka ditugula, eguberriko posta-txartelak egiten ikasteko tailerra egingo dute azaroaren 12an, eguenagaz. Jarduera hori ere liburategian egingo dute, arrastiko 17:30etik 19:00etara.

Azkenik, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Egunean, hilaren 25ean, hain zuzen ere, film bat proiektatuko dute Ander Deuna kultur aretoan. Horretarako hitzordua 17:30ean jarri dute, eta 19:00etara arte luzatuko da hori. ◀



Belena usaina

DAVID CRESTELO DOMINGUEZ  
Plentziarra**Batzen gaituena**

Plentzia eta Gorniz herriek euren zerbitzuak partekatze hamaika saiakerara egin dute, herritarrei zerbitzuen kalitate handiagoa eskaintzeko asmoz: iturriak eta iturburuak, mendiak eta euren ustiapena, bideak... Azken urteotan asko hitz egin da beste zerbitzu batzuk bateratzeko, besteak beste, hondakinen bilketa, udaltzaingoa, futbol taldeen batasuna... baina beti ezinezkoa izan da. Irtenbideak bilatu beharrean, muga gehiago sortu dira, eta herri batak egin duena besteak txarto ikusi du, eta alderantziz.

Baina, inoiz saiatu ez dena euskararen inguruko lankidetzara aurrera eramatea izan da. Bada garaia, espero dugu gure hizkuntzak bi herriak benetan batzea. Laster, lehenengo pausoa! ◀

## Lemoiz



Kontsumitzaileek 2.273 milioi ordaindu dituzte zentrala amortizatzeke.

## Zentrala, behin betiko ordainduta

Orain dela 20 urte hasitako moratoria nuklearrari aurre egiteko ordainketa kitatu dute espainiar estatuko kontsumitzaileek. Gainordain hori Lemoizko zentral nuklearra ez zabaltearen ondorioa izan zen. Kostu hori energia elektrikoaren ordainagirian txertatzea erabaki zuen Espainiako Gobernuak 1996an. Hala, kontsumitzaileek 2.273 milioi euro ordaindu behar izan dituzte zentral hori amortizatzeke, Merkatuen eta Lehiakortasunaren Batzorde Nazionalaren (CNMC)

datuen arabera. Lemoizkoagaz batera, Valdecaballeros (Badajoz) eta Trillo III (Guadalajara) zentralak ere moratoria horretan sartu ziren, 1984an. Horren ondorioz, kontsumitzaileek 5.717 milioi ordaindu dituzte guztira, hiru zentral horiek amortizatzeke.

Lemoizko zentralaren proiektuaren kostuei aurre egiteko, energiaren ordainagirian %1,72 eta %0,3 arteko gainordaina sartzera erabaki zuten 1996an. Azken kuota abuztuan igorri zuten, eta urriaren 23an behin betiko likidatu da ordainketa. ◀

## Uribe Kosta

## Berdintasunerako Guneak geldialdiak egingo ditu eskualdean

Azaroaren 9an da Emakume eta Gizonen Berdintasunerako XII. Gunea. «Gizartea aurrera doa berdintasunerantz, ez dezagun atzera egin» izenburupean eman zioten hasiera hilaren 5ean egitasmoari, eta abenduaren 18ra arte iraungo du. Getxo, Leioa eta Erandion geldialdiak egin ostean, Gunearen autobusak Plentzia, Gorliz eta Berango bisitatuko ditu. Azaroaren 9an, astelehena, Plentziara joango da berdintasunaren aldeko autobus ibiltaria. Bertoko ikasleei begirako

ekimena izango da, eta 09:00etatik 17:00etara, Astillero plazan. Hurrengo egunean, hilaren 10ean, Gorliz egingo du geldialdia autobusak, bertako ikasleek berdintasunaren nondik norakoak ezagutu ahal izateko, 09:00etatik 16:30era, Kinpulena kalean. Handik egun bira, ostera, Berangoren txanda izango da. Azaroaren 12an, eguenean, autobusak 09:00etatik 19:00etara arteko geldiunea egingo du, ikasleentzat. ◀

info+: [www.emakundeapp.com](http://www.emakundeapp.com)

## Berango

## Emakunde diskoteka baten kartel «erotikoa» ikertzen dabil

Begira batzordea Berangoko diskotekako ikuskizun erotikoa iragartzeko kartelaren nondik norakoak ikertzen ari da. Horren harira, Izaskun Landaida Emakundeko zuzendariak espero du batzorde horrek hainbat gomendio aurkeztea, etorkizunean horrelakorik gerta ez dadin.

Orain dela hiru asteburu udalerriko diskoteka batean egindako ikuskizun erotikoa iragartzeko kartela sexista den ala ez ikertzeko prozesua jarri zuen martxan Emakundek. Izan ere, aipatutako kartel horretan, korda batzordeak lotutako lau emakume eta gizon bat agertzen ziren. Zeintzuk neurri

hartuko diren zehaztu aurretik, Emakundek iragarki hori eta ikuskizuna bera ikertzen dihardu. Horretarako, gizonen eta emakumeen eremu pribatuari lotutako berdintasunerako defendatzailea eta Begira batzordea ari dira lanean; publizitatean eta komunikazioan sexismoa ekiditeko lan egiten du Begira batzordeak.

Maria Isabel Landa Berangoko alkateak argitu duenez, mota horretako ikuskizunak ez daude debekatuta, baina gogoratu du 18 urtetik gorakoei begira daudela mugatuta. Hori horrela, diskotekan adingabeak egon ziren ala ez ikertuko dute. ◀

## Herriko gazteen iritzia jakin gura du Berangoko Udalak

Udalak 12 urtetik gorako neska-mutilei begirako eskaintza gazteen nahietara egokitu gura du. Horretarako, Gazteria eta Kultura, Kirola eta Berdintasuna sailek inkesta bat zabaldu dute gaur egungo eskaintzaren gainean gazteek duten iritzia jakitzeko. Horretan, iritzia jaso, zer espero duten eta eurek eta euren familiek dituzten beharrak jaso gura dituzte. ◀



## Herri txikietan, berdintasuna bultzatzeko plana

Aldundiak berdintasunerako politikak indartu gura ditu 5.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrietan. Horretarako, Berdinbidean Bizkaia programa martxan ipini dute. Horren bitartez, Bizkaiko Foru Aldundiak laguntza tekniko eskainiko du, udal horiek guztiek «berdintasun printzipioetatik» jardun dezaten. Uribe Kostan, Barrika, Lemoiz, Plentzia eta Urduliz daude lanerako sare horren barruan sartuta. ◀

info+: [www.bizkaia.net](http://www.bizkaia.net)

SARTU GURE  
WEB BERRIAN  
[www.cianoplan.es](http://www.cianoplan.es)  
902-103 763

kartelgintza



inprimategia



kopisteria



Sopelan *Soinuaren Bidaia* diskoa aurkeztuko du Alberto Urretxok. © SOPELAKO UDALA

# Musikaren epelean



**Musikaldia musika-zikloa abiatuko** da barikuan, Sopelan. Hilaren 15era arte, bost ekitaldi izango dira Kurtzion; jazza eta abesbatzak entzun ahal izango dira.

**B**ariku honetan hasi eta hilaren 15era bitartean, Musikaldia udagoieneko zikloaz gozatu ahal izango da Sopelako Kurtzio kultur etxean. Antolatzaileek bost ekitaldi prestatu dituzte, hilaren 6, 7, 13, 14 eta 15erako. Zikloa Sopelako Lagun Artea abesbatzak zabalduko du. Herriko koruak 10 urte bete ditu aurretik, hori dela-eta, abesbatzen topaketa gidatuko du bariku honetan, 19:30etik

aurrera. Beste taldeak Okondoko Itzalde abesbatza eta Burgosko Valle de Mena araneko korua izango dira.

## Sopeloztarren uzta

Lagun Arteakoez gainera, Sopelako ahots gehiago entzun ahal izango da musika-zikloan: azaroaren 13an, barikua, Itxaso & Jose Luis Canales bikotearen jazz-emanaldia izango da, 20:00etan. Itxaso Gonzalez sopelozta-

rra goi-mailako kantaria da. Adituen arabera, bere ahotsa jazzaren gaur egungo arloko erakargarrienetako bat da. Kantu klasikoan prestatu ostean, berehala hasi zen musika moderno eta inprobisatua lantzen. Jazzaren es-

**Lagun Artea koruak hamar urte bete ditu aurretik, eta abesbatzen topaketa gidatuko du**

parruan garatu zuen bere karrera, eta Ahots Modernoen Tekniketan jarraitu

zuen prestatzen. 1989. urtean Bilboko Arriaga Antzokian egin zuen debuta, bakarlari moduan, Big Band Bilbagoz. Harrezkero, hainbat sari irabazi, eta Euskal Herriko zein Estatuako musikaririk onenakaz abestu du. Oraingoan, Jose Luis Canal piano-jole interesgarri eta ezagunagaz jardungo du. Hilaren 14an Alberto Urretxok *Soinuaren Bidaia* diskoa aurkeztu, eta *Serenata de Polentzi* film laburra proiektatuko du. Hilaren 15ean, umeen txanda izango da: eurentzako musika-tailerra eta kontzertua prestatu ditu Euskadi Brass taldeak. Saio denetan, sarrera 3 euroan eskuratu ahal izango da. ◀

## Japoniatik Areetara dator mangaren unibertsoa

**M**anga zaleen eta *otaku*-en erreinu bihurtuko da pare bat eguneguz Areetako Xake plaza. Bertako karpak hartuko du Getxoko Manga Jaialdia aste-akabu honetan, zapatuan eta domekan. Ohi den legez, azokak hedatuko du Japoniako eta ekialdeko komikiakaz eta animazioakaz lotutako hainbat jarduera.

Bertan topatu ahal izango dira argitaletxeen azken nobedadeak; Bea Gonzalez, Antonio Alonso eta Nekro ilustratzaile profesionalen bisitak izango dira; manga-tailerrak, marrazki bizidunetako filmak, marrazki-liburuak, eta mota guztietako produktu komertzialak. Horiez gainera, ez dira



© GETXOKO KULTUR ETXEA

faltako karta-jokoak, taldekako ginkanak, sukaldaritza japoniarra, Koreako musika, zein bideo-jokoei eta mangari buruzko txapelketa. Azokarako sarrera 3 euroan lor daiteke. ◀

info+: [Salondelcomicdegetxo.net](http://Salondelcomicdegetxo.net)

## Emakumeen ahotsa sekuentzia grafiko bihurtuta, ikusgai

**E**guen honetatik hilaren 29ra gozadateke «Voz de mujer rompiendo estereotipos» komiki- eta ilustrazio-erakusketaz. Algortako Torrene aretoak hartuko du Marika Vila komikilari katalanaren obra, Getxoko Komiki Azokaren ekimenen barruan. Vila 1973an hasi zen bederatzigarren artean. Ikuspegi feminista argia ekarri zuen komiki-mundu hartara; orduan gutxiengoa, eta, batez ere, gizonezkoena zen komikien mundua. Erakusketan, emakumeen eskubideen eta esperimentazio grafikoaren aldarrikapenak batera daude. Besteak beste, Vilak *Rambla, Butifarra!*, *El Papus* edo *Barbie* aldizkarietan egin zuen lan. ◀

## Euskalgintza eta euskara berrikasi eta berrikusteko unea da

**E**guenean, azaroak 5, hitzordu berezia hartuko du Algortako Azebarri kultur elkarteak (Euskal Herria etorbidea, 14-16). Bertan, 19:00etatik aurrera, Kike Amonarrizek *Berrikasi eta berrikusi* goiburupeko eztabaida gidatuko du. Ez da ohiko berbaldia izango. Azken hamarkadetan euskarak eta euskalgintzak izan dituzten bilakaerak aztertu eta datozen urteotarako lan-ildoak hausnartzeko aukera eskaini gura dute Bizarra Lepoan euskara-elkarteak eta Euskaltzaleon Topaguneak antolatutako ekimenagaz. Parte hartu nahi dutenei gogoeta-testua aurretik irakurtzea gomendatu diete. ◀

info+: [Bizarralepoan.eus](http://Bizarralepoan.eus)

# hirukagenda

Uribe Kostako astekarria

2015eko azaroaren 5etik azaroaren 11ra arte



hiruka.eus



URIBE KOSTA

Mungian dago Landetxo Goikoa baserria. © IZENADUEBA BASOA

## Olentzero bisitatzera doaz hainbat herritatik

Olentzerok Mungian daukan etxea bisitatzeko hainbat txango antolatuta ditu Uribe Kostako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak. Hala, Sopelatik abenduaren 11n joango dira, 17:20an Larrabasterrako Urgitxieta plazako autobus-geltokitik abiatuta (17:25ean Sopelako elizan); abenduaren 14an, Barrikatik irtengo dira, 17:15ean; eta abenduaren 15ean, Plentziako Eroski-

ko autobus-geltokitik, 17:30ean; abenduaren 16an, Gorizko Euskadiko Kurako autobus-geltokitik, 17:30ean; abenduaren 17an, Urdulizko BBKtik, 17:30ean; eta abenduaren 18an Lemoiztik: Armintzan, 17:20ean, eta Urrizarren 17:30ean igoko dira bidaiariak.

Adi ibili izena emateko epeei: azaroaren 9tik 15era herri bakoitzean erroldatuta daudenek edukiko dute

aukera; kanpotarrek, ostera, azaroaren 16tik 22ra. Barrikan izan ezik, beste bost herrietan 0 eta 2 urte bitarteko umeak doan joango dira; eta 3 urtetik gorakoek 8 euro ordaindu beharko dituzte. Azken horietarako, 40 leku baino ez daude herri bakoitzean. Sopelan izan ezik, beste herrietan kultur etxera joan beharra dago izena ematera.

info+: euskaraz@uribekosta.org

LEIOA

## Pinocchio-ren istorioaz gozatzeko aukera edukiko du sendiak

Domekan, azaroak 8, *Pinocchio*, *figlio di Geppetto* testu bako familia-antzezlan eskainiko du La Baldufa talde katalanak, Kultur Leioako auditoriumean. Saioa 18:00etan izango da; sarrerak salgai daude, 5 euroan. *Pinocchio* izeneko ume aske baten istorioa da: aurreiritzi eta konplexurik ez du, eta oso inozoa da; aldi berean, Geppetto ahalegintzen da umea hezten. Baina, Pinocchio gorabeheretan sartzen da, hazi eta heltzeko aukera ematen diotenak, leher eginda amaitzen duen arte. Carlo Collodiren jatorrizko testuan oinarritzen da, eta bukaera harrigarria dauka antzezlanak. ◀



KULTUR LEIOA

2015/11/05 - 19:00

### Berrikasi eta Berrikusi solasaldi-elkarrizketa

**Azabarri kultur elkarte (Aigorta) | Getxo**  
Bizarra Lepoan euskara-elkarreak antolatuta. Kike Amonarrirek egingo du berba. Doan.

2015/11/05 - 20:00

### Sinbanda taldearen pop kontzertua

2015/11/07 - 20:00

### Encomediados umore-bakarrizketak

**Josu Murueta kultur etxea | Erandio**  
Iser Ramos eta David Andresek parte hartuko dute. Gaztelaniaz. Sarrera: 2 euro.

2015/11/07 - 20:00

### Franck & Encores musika klasikoaren kontzertua



BARRIKA

## Paperezko irudiak egiten ikasiko dute

Azaroaren 11n, eguaztena, papirorflexia-tailerria edukiko dute Barrikako liburutegian, 6 eta 12 urte bitarteko neska-mutilek. Ikastaroa 17:30etik 19:00etara izango da, doan. Hala ere, aurretik izena eman beharra dago. Japonian du jatorria papirorflexiak edo, berba japoniarra erabiltuta, *origami*-ak. Edozein irudi lor daiteke papera tolestuz; irudi miragarriak egiten dira gaur egun, papera ebaki edo kolaz itsatsi barik. Papera zelan eta nondik tolestu da gakoa. ▶

izen-ematea: 946 775 163



## VI. PINTXO LEHIAKETA

PINTXOA  
**1€**



Pintxotan eta berbetan!

GetxOn  
egin

AZAROAK 7/8 14/15

Izan ARGIA.  
Eros ezazu Dacia bat.

Dacia Sandero  
6.200€-tik aurrera\*



5 urteko<sup>1</sup>  
BERMEA



DACIA

f Dacia España YouTube Dacia ESP

www.dacia.es / 91 506 53 59 | Ikus ezazu zure Renault-Dacia kontzesionarioan.


1) PSPA Penintsulako eta Baskoibarko da, partikular edo autonomo batek Sandero berritua 1,2-55 kw (17-75 CV) erosteko, baina diburu zergia eta deskontua, eta PVE-B planaren baldintzak bete. Irudiko irudiak Dacia Sandero Larraketa 1,2-55kw (17-75 CV) 785DE berritua dira. Zergia eta deskontua, eta PVE-B planaren baldintzak bete. Partikular edo autonomo batek da aplikagarria Dacia Box berritua. Inbentario gero RCI Banque SA Sucursal en España-rekin, Guviciendako epia: 24 hilabeteko. Finantziatu behar diren guztien kopurua: 4.000 €. 5 urteko berritua Dacia gura gutxienez, lehen bi urteetan kilometro mugarik gabe, eta hirugarren urtean berritua erostu erostu erostu da 100.000 km gaurduz gero. Hirugarren urtean aurrera. Dacia Service-ren kontrolatutako berritua-iragapen arloak egongo da berritua hainbat berritua denetan. 2 urte gehigarri edo gutxiya 80.000 km, berritua berritua denetan (ikusi berritua-iragapenaren azterketa berritua). RRC544 eta berritua deskontua. Kikatzak 2015/11/1-01 eko 2015/11/15era irateko da. Ez da berritua berritua berritua erostu berritua.

Dacia Sandero berritua: kontsumo mistoa (l/100km) 3,8 eta 5,8 bitartean. CO<sub>2</sub>-aren isurria (g/km) 90 eta 130 bitartean.

Dacia sponsoriatzen du

BILBO BERRI Jon Arrospeide, 20, Tel. 94 448 39 00 DEUSTU [www.bilboberri.com](http://www.bilboberri.com)  
LEIOA BERRI Iparragirre Hiribidea, 94, Tel. 94 480 42 90 LEIOA [www.renault.es/concesion/leioaberri](http://www.renault.es/concesion/leioaberri)

BIDEZABAL - ANDRAMARI	
1	TXIKITXU TABERNA *
2	LARRA TABERNA
3	LA TXOKOLATERIA
4	HAIZEA
ALGORTA	
5	BODEGA OTXOA *
6	TABERNA BERRI *
7	BIKAIN JATETXEA
8	BAR AITA MARI
9	SALON DE JUEGO OLLARRETA
10	JOLAS AURRE KAFETEGIA
11	NIKKOU
12	MAMARRO
13	LAU BIDE
14	BURDINOLA
15	SALEM CAFE
16	SUSTRAI
17	ALGORTAKO BATZOKI TABERNA
18	GAZTELU TABERNA - GETXO RUGBY
19	UGARTENA
20	TABERNA JATETXEA UNAI
21	KAIXO GASTROBAR *
22	SATISTEGI
23	BASTER TABERNA
24	EKIA TABERNA
25	TABERNA JATETXEA EKIN
26	BARBARELLA CAFE
27	LAINOA TABERNA
28	BASERRI
29	BAR VILLAMONTE
30	HATOR TABERNA
31	BAR ITURGITXI
MAKALETA-EREAGA-KIROL PORTUA	
32	RESTAURANTE-ESCUELA FADURA *
33	HOTEL RESTAURANTE ARTAZA
34	RESTAURANTE JOLASTOKI *
35	LA OLA
36	HOTEL IGERETXE
37	BAR SKIPPER
38	SILVER'S TAVER
AREETA-ITZUBALTZETA/ROMO	
39	AROTZA
40	BAR KOLDO *
41	ARENAS BERRIA
42	THE WILLOWS
43	PLAZA AREETA
44	LA GABARRA
45	ONDARRETAKO BATZOKIA
46	ETXE-ZURI *
47	BAR ZOTZ
48	AMATXO MAITEA
49	OKU LOUNGE
50	COSMOPOLITA *
51	PIANAMUL
52	SUGAAR
53	LA REJA
54	BAR ALFONSO
55	SALON DE JUEGO ZUBIA
56	CAFETERIA AREMUNA KAFETEGIA



Piropo onenek opari ederrak irabaziko dituzte!

## Esan pintxoari hitz goxoak, euskaraz!

Aurreko ekitaldietan legez, pintxoak dastatzen dituztenek euskaraz *piropo* edo hitz goxo bat ere idatzi ahal izango dute; aurtengo berrikuntza: hitz goxo horiek WhatsApp bidez bidali beharra dagoela; mezua hurrengo zenbakira igorritz: 628 688 614. Hitz goxoaz gainera, pintxo egin duen tabernaren izena ere aipatu beharra dago.

Sariei dagokienez, *piropo* onenek ondorengoak irabazteko aukera izango dute: Euskaltelek emandako 2 liburu elektronikoa; Coca-Cola-ren ekimezez, Athletic-en partida bat ikusteko 4 sarrera bikoitz eta Dominion Bilbao Basket-en partidaz gozatzeko 4 sarrera bikoitz; Eusko Labeldun produktuen otzara; Iñaki bitxi-dendan erloju zoragarria; Basalbo jatetxean bi laguntzako afaria, Kontxi urdaitegian 50 euroko erosketa-txartela, Supersonidoren MP4 bat eta Intersport Gaztañagaren motxila.

Adibidetzat, hona iazko hitz goxo batzuk: «Zelako testura, zelako piura», «Ni zurekin joango nintzake zerura», «Pintxotarra ta ardotarra, horrelakoa da getxotarra», «Mokadu preziatua Getxoko sekretua!», «Urdaiazpikoa eta intxaurra, horrek bai piztu sugarra!», «Zu bazina sagarra eta ni banintz harra, jango nuke baitere... zuztarra!», «Edozein taberna, edozein barra, zu zaitugu pintxoaren izarra».

**Parte har ezazu WhatsApp bat bidalitz**

628 688 614 telefono zenbakira, bertan idatzi: hitz goxoak euskaraz eta pintxo dastatu duzun tabernaren izena.

\*Zapatuetan bakarrik

## Zabaldu euskararen atea

### DIRULAGUNTZAK

ERROTULUAK, TOLDOAK, BINILOAK ETA IBILGAILU KOMERTZIALAK EUSKARAZ IPINTZEKO

**Hauxe da aurreztu dezakezuna:**

**% 50** gehienez 300 euro, euskaraz hutsez jartzen baduzu.

**% 30** gehienez 100 euro, euskaraz eta gaztelaniaz jartzen baduzu, beti ere euskarazko testuak lehenetsuta badu.

**Informazioa:**

GETXOKO UDALEKO EUSKARA ZERBITZUA

**94 466 00 10/11**

euskara.zerbitzua@getxo.eus  
www.getxo.eus

**CINCOPLAN**  
KALDE  
LA REINO

**TOLDOAK Y PESTANAS MUSEUA**  
BILU ARTE PESTANAS Y TOLDOAK

**COPISTERIA ROMO**  
IMPRENTA ARENAS  
SUSA  
BOTOLES ARRILLOE

## VI. Pintxo lehiaketa

# Pintxotan eta berbetan

**Denera 56 establezimenduk** parte hartuko dute «GetxOnegin» VI. Pintxo Lehiaketan. Lehiaketa azaroaren 7an, 8an, 14an eta 15ean izango da, goiz eta eguerdian.

**G**etxOnegin lehiaketaren bidez, Getxoko Udalak ostalaritza eta euskara uztartzea eta sustatzea du helburu, euskara kalitate gehigarriaren adierazle izan dadin udalerriko establezimenduetan. Horrez gainera, irudi gastronomikoa indartzea, Getxoko pintxo-eskaintzari zabalkundea ematea, eta GetxOnegin proiektua promozionatzea eta gizarteratzea gura dute antolatzaileek: Getxoko Udaleko Getxolanen eta Euskara Zerbitzuaren arteko elkarlanaren fruitua da pintxo-lehiaketa hori, eta aurre seigarren ekitaldia izango da.

Parte-hartzaileen pintxo gozoak dastatzeaz gainera, lehiaketak iraun-

go duen egunetan kale-animazioa ere izango da, ekimena musikaz ere alaitzeko. Horretarako, herriko hainbat elkarte ibiliko da kaleetan giroa berotzen: Itsas Argiako Dultzaineroak eta Kantari Kanta taldekoak Andra Marin eta Algortan ibiliko dira; Kantuz Itzualtzetan taldekoak Romon eta Areetan, eta horien inguruan Berbalagunen taldeetakoek zein ALBEko kideek ere parte hartuko dute...

### Pintxo onenari saria

Epaimahai bakarrak egingo du osteratxoa establezimendu guztietatik eta probatuko ditu pintxo denak. Ostean, sari nagusi bakarra zein pintxori

emango dion erabaki beharko du, eta horretarako, pintxo onena aukeratzeko, erabiliko dituen irizpideak hauek izango dira: aurkezpena, zaporea, testura, originaltasuna eta euskararen erabilera. Saria, lehendabiziko aldiz, lehiaketarako propio sortutako eskultura eta diploma bat izango da. Eskultura Jon Alberdi Bastidarena da, forjaz egina.

Sari nagusiaz gainera, hiru aipamen berezi ere banatuko dira: euskararen erabilera hobereana duen establezimenduak Luix Artola artisauak egindako eskultura eta diploma jasoko ditu; pintxo tradizional hoberenak Eusko Labeldun produktuen otzara eta diploma, eta azkenik, barrarik onenak Getxoko laminek joko bat eta diploma jasoko ditu.

Gura duzunean eta gura duzunagaz, baina GetxOnegin!

# GetxOnegin

## Sariak

- 1 Bi e-book, Euskaltelek emandakoak.
- 2 Athletic-en partida bat ikustera joateko 4 sarrera bikoitz eta Dominion Bilbao Basket-en partida baterako beste 4 sarrera bikoitz, Coca Colaren ekimenez.
- 3 Eusko Labeldun produktuen otzara.
- 4 Erloju zoragarria, Iñaki bitxi-dendan.
- 5 Bi laguntzako afaria, Basalbo jatetxean.
- 6 50 euroko erosketa-txartela, Kontxi urdaitegian.
- 7 MP4 bat, Supersonidon.
- 8 Motxila bat, Intersport Gaztañagan.



**STOCK  
EUSKADI 2015**

**AZAROAK 6 - 7 - 8 NOVIEMBRE**

11:00 - 21:00H  
SARRERA 2€ UMEAK DOAN

**%80ra**  
arteko  
**DESKONTUAK**  
**PRIMERAKO**  
**MARKETAN**

**BESTE MUNDUKO ESKAINTZAK**



**EGITURA BERRIA**

ZUZENKO ESKAINTZAK  
PHOTOCALL-A  
INTERAKZIOA SARE SOZIALETAN  
PANTALLA ERRALDOIA  
YOUTUBERRAK, BLOGGERRAK  
ETA ASKOZ GEHIAGO!

**3.000€ tako ZOZKETA\***

**BERTARATUTAKOEN ARTEAN**  
**\*200€ 2 orduro**

Informazio gehiago: [www.stockeuskadi.com](http://www.stockeuskadi.com) [info@stockeuskadi.com](mailto:info@stockeuskadi.com) Tel. 944 458 222 Jarraiguzu: [f](#) [t](#) [s](#) stockeuskadi

hiruka

# GetxOn egin

Orriotan agertzen diren 31 taberna edo jatetxeak dira HIRUKAren gehigarri berezi honetan parte hartu gura izan dutenak; bide batez, euskarazko komunikazio-proiektu honi bultzada emateko prest egon direnak. Oro har, aurtengo VI. Pintxo Lehiaketan guztira 56 parte-hartzaile egon dira (denak aurki ditzakezue 2. orriko mapan)

On egin, lagun!

4



## Haizea

### HAIZEA TABERNA

**Osagaiak:** Porrua, txatka, ganba, arrautza txikituta, piper gorri, berde eta tipulazko ozipin-olioa

**Kafetegia HAIZEA**  
ERREMA ERARAKO KAFEAN ADITUAK  
PINTXO ETA KAZUJETA  
GOXO-GOXOAK  
944 300 395  
SARRIKOBASO, 42 - ALGORTA

6



## Artzainen bazkaria

### TABERNA BERRI\*

**Osagaiak:** Ogi-mamiak, txistorra, Uztarrotzeko gazta, tomate-saltsa, galeper-arrautza, onddo-saltsa eta oliba-olioa



\*Larunbatetan bakarrik

7



## Izokin tinbala

### BIKAIN JATETXEA

**Osagaiak:** Patata, piperrautsa, izokina, te berdea, limoi-zukua, ezamihilua, piperbeltza, gatza, gazta freskoa, tomate deshidratatua, txipiroi-saltsa eta tipula frijitua



8



## Marrubi jogurt

### AITA MARI TABERNA

**Osagaiak:** Sorpresa! Bertako produktuak



10



## Baratza

### JOLAS AURRE KAFETEGIA

**Osagaiak:** Tomate heldua, oliba-olioa, cherry tomatea, brokolia, loreak, kalabazina, irina, gurina, erremolatxa eta txipiroi-tinta



11



## Kurruskaria...

### NIKKOU JATETXEA

**Osagaiak:** Barazkiak (azenarioa, lekak, berakatza, tipula), arroz-orriz egindako ore, urdaiazpiko egosia eta maionesa mina



13



## Lau bide: Gora behera

### LAUBIDE TABERNA

**Osagaiak:** Hegaluzea, maionesa, letxuga, moldeko ogia, tomatea eta saltsa mina



Erreserbatu orain  
Gabonetako eskariak

Torrene, 2 • 48991 Algorta  
946 010 947 657 252 893

ITSASKITEGIA • **ESKARRA** • MARISQUERIA

VIVERO

Produkturik onena, bizirik,  
egosituta eta enkarguz

pedidos@mariscoseskarra.eus  
www.mariscoseskarra.eus



14



### Soufle Burdinola berria

#### BURDINOLA TABERNA

**Osagaiak:** Moldeko ogia, piperra, bakailaoa eta arrautza-gorringoa



15



### Kukulu biribilkia

#### SALEM KAFE

**Osagaiak:** Tuterako kukuluak, izokina, ozpinetako luzokerra, Philadelphia gazta, olio eta ozipina



16



### Itsas arroza

#### SUSTRAI TABERNA

**Osagaiak:** Arroza, otarrainxka eta arrain-zukua



18



### Arrautzaraino

#### GAZTELU - GETXO RUGBY

**Osagaiak:** Porru-krema, kalabazina, arrautza, patata, urdaiazpiko kurruskaria eta otarrainxka



19



### Odoloste ogitartekotxoak

#### UGARTENA JATETXEA

**Osagaiak:** Odolostea, galeper-arrautzak eta ikatzetan erretako piperra, txokolatzeko ogia eta orejoiak



20



### Olagarroa egur-ikatzetan

#### UNAI JATETXEA

**Osagaiak:** Olagarroa, patata bioleta, pikillo piperrezko aliolia



22



### Arroz mamitsua...

#### SATISTEGI TABERNA

**Osagaiak:** Arroza, planktona eta zitrikoen aparra



23



### Gorri-gorri

#### BASTER TABERNA

**Osagaiak:** Gari-opiltxoak, tipula ardo beltzarekin, atun gorria, txipotle-krema, errukula-kimuak eta sesamoa



Ogiak eta opilak, aurreprestatuak, izoztutako jakiak... LEHEN MAILAKO PRODUKTUAK BETI ZURE NEGOZIOAN

946 33 47 60

d.euskopan@lasem.com  
http://www.euskopan.com

**euskopan**  
Kalitatea Barietatea Arreta



**Discon 94**  
distribución de congelados

25



### Txipi berria

#### EKIN TABERNA JATETXEA

**Osagaiak:** Txipiroia, horien tintaz egindako bizkotxo, hirugiharra, arroz-teila



27




### Bakailao-Tartara

#### LAINOA TABERNA

**Osagaiak:** Ahuakatea, porrua, tipulina, concasse tomate, esne-gaina eta piperra



28



### Sumendia

#### BASERRI TABERNA

**Osagaiak:** Patata, arrautza, antxoak, tipula, esne-gaina eta urdaiazpiko iberikoa



29



### Jai Alai.com

#### VILLAMONTE TABERNA

**Osagaiak:** Berakatz, tipula, porrua, azenarioa, ardo beltza, piperbeltz beltza, ereinotza, okela-salda, behi-masaila, marrubia, azukrea, ura, kanela, irina, olio eta patata



30



### Hator Sasisushia

#### HATOR TABERNA

**Osagaiak:** Nori alga, patata purea, lukainka, piper gorria, tipulina eta curry-ziapea



36



### Bakailao- eta onddo-tinbala

#### IGERETXE HOTELA

**Osagaiak:** Onddoak, bakailoa, sagarra, ogia eta misoarekin



38



### Hegaluzea piperradarekin

#### SILVER'S TAVERN

**Osagaiak:** Hegaluzea, pipermina, piper gorria, piper berdea, tipula, Errioxako alegria, ozpinetako luzokerra, olibak, maionesa eta tipulina



39



### Hiru kolore

#### AROTZA TABERNA

**Osagaiak:** Barazki erreak (piper gorria, berdea eta tipula), hegaluzea- eta bakailao-xerrak mangoz egindako pil-pilarekin eta sagardo-gelatinarekin



41



*Bakailao piperrada*

**ARENAS BERRIA TABERNA**

**Osagaiak:** Patata, piper gorria, piper berdea, tipula, bakailaoa eta aliolia



44



*Itxasoko sagarra*

**LA GABARRA TABERNA**

**Osagaiak:** Sagarra, atun, oliba, arrautza egosi eta maionesaz beteta



45



*Tataki Ondarreta*

**ONDARRETA KO BATZOKIA**

**Osagaiak:** Atun gorria, sesamo beltza, teriyaki-saltsa, barazki kurruskariak, gatz-ekatak, oliba-olio birjina



49



*Txipiroi-sorpresa*

**OKU LOUNGE TABERNA**

**Osagaiak:** Txipiroi betea pikillo piperraren barruan tipula konfitatuarekin, perretxiko eta otarrainkaz beteta, txipiroi-tinta eta garagardo-erredukziozko txupitoarekin



50



*Odoloste hostopila...*

**COSMOPOLITA KAFETEGIA\***

**Osagaiak:** Odolosteia, kalabazina, barazkiak eta Lodosako pikillo-krema



\*Larunbatetan bakarrik

53



*Txirla ganbaz beteta*

**LA REJA JATETXEA**

**Osagaiak:** Txirla, ganba, tipula, berakatzia, irina, tomatea, esnea, piper berdea, pikillo piperra, ogi arraspata eta arrautza



54




*Intxaurrazko bitxia*

**ALFONSO TABERNA**

**Osagaiak:** Moldeko ogia txigortuta, iberiko kurruskaria, foie, intxaurra eta Modenako ozpina



56



*Bizkaiko txakurtxo beroa*

**AREMUNA KAFETEGIA**

**Osagaiak:** Monedero harategiko saltxitxak, ogia, tipula, piper gorria, Idiazabalgo Santamañe gazta egindako saltsa, Txabarri txakolina eta kaiena





**La Granja**  
"Kalitatezko elikagaiak"  
"Alimentos de calidad"

**%5**eko deskontua  
zure erosketan kupoi hau aurkeztuta  
5% de descuento en tu compra presentado este cupón

Eskaintza hau erabili ahaliko da azaroaren 6tik 20ra bitartean. Promoción válida del 6 al 20 de Noviembre. Ezongo da erabili beste deskontu-banaketekin, enpresa txirekin edo eskaintze gabeekin. Gahenez bi kupoi erabili ahaliko dira astero. No acumulable a tarjetas descuento, tickets de empresa y artículos en promoción. Se podrán utilizar máximo 2 cupones a la semana.

Gehienez  
2 kupoi  
astean  
"Perpetua bakoitzeko"



Adiskidetasun kalea, 15  
Tel.: 94 463 78 60  
**AREETA**  
info@lagranjaseleccion.es  
www.lagranjaseleccion.es



URDAITEGIA - ETXKO SUKALTZARITZA - FRUTAK - HARAGIAK - DELIKATESSEN - UPELTEGIA - ARDO KATA - OPIARITZEKO OTZARAK

# HIRUKAk pintxotan joateko gomendatzen dizkizun egundoko lekuak!

Getxo

**PORTU ZAHARRA TABERNA**

Portu Zaharra, 35

Itzubaltzeta/Romo

**GURE ETXEA TABERNA**

Caja de Ahorros, 14

Erandio

**MOTAGANE JATETXEA**

Leioa-Unbe errepidea, 34

Sopela

**LURREN TABERNA**

Ripa kalea, 1

Gorliz

**XURRUT PIZZA-BAR**

Hormalanda Plaza, 2

Urduliz

**TXIBERRI TABERNA**

Aita Gotzon, 4

**Eta erosketetan joateko...**

**KONTXI ZUAZUBIXKAR URDAITEGIXA**

Alangobarri 10, Algorta

**Adituak urdaiazpiko iberiko, pate eta gaztaietan!**

[www.beharsarea.net/Getxo](http://www.beharsarea.net/Getxo)



**Jendea behar dut**  
Necesito personal

Beharsarea-k harremanetan jartzen ditu lana euskaraz egiteko jendea behar duena eta lana bilatu gura duen euskalduna



**Lana behar dut**  
Necesito trabajo

Zaintzaileak

Begiraleak

Merkataritza

Ostalariak

Eskola partikularrak

Industria

Bestelakoak

**Esperientzia handiko ostalaria naiz eta lan bila nabil**

**Zerbitzari euskaldunak behar dituzu?**

Jarri iragarkia [www.beharsarea.net/Getxo-n](http://www.beharsarea.net/Getxo-n)

[www.beharsarea.net](http://www.beharsarea.net) bide erraza eta zuzena Interneten



beharsarea  
Getxon lana euskaraz

egizu.eus



EUSKARA BIZI



Getxo  
bizi ez du

SOPELA

## Putxeren lehiaketa, Pepetxin gogoratuz

Marmiton Kolektiboak antolatuta, zapatu honetan, azaroak 7, Putxera Egunekeo seigarren ekitaldia egingo dute, Jose Lopez *Pepetxin* zenaren omenez. Izen-emateak egunean bertan egingo dira, goizeko 09:00etatik 11:00etara. ◀

ERANDIO

## Dantza ikastaroa plazan egingo dute

Trabudu taldeak antolatuta, zapatu honetan, azaroak 7, euskal dantzak praktikatu eta ikasteko aukera egongo da, 19:00etatik 20:30era, Jose Andres Mendiguren plazan, albokari eta trikitilariakaz. Ikastaroa doan izango da. ◀

GETXO

## Berbalagunen askaria, hilaren 12an

Egizu euskara taldeak azaroaren 12an, eguena, egingo du berbalagunen merienda; 19:00etan, Algortako Bidebitar-te txokoan. Joan ahal izateko, aldeaz aurtefik 10 euro ordaindu beharra dago. ◀

info+: [www.egizu.eus](http://www.egizu.eus)



Ikuskizunak 50 minutu irauten du, eta gazteei zuzenduta dago. © KULTUR LEIOA

# Gorputzak kulunkan, askatasun bila

VerTeDance Company & JirHavelka dantza-talde txekiarak *Correction* ikuskizuna eskainiko du. Publikoaren aurrean, zazpi gorputz kulunka agertuko dira, metronomoen antzera. Ematen du eroriko direla; baina gorputz bakoitza zuzendu egiten da, eta orekari eusten dio. ◀

**Noiz:** Azaroak 6, barikua.

**Ordua:** 20:30

**Non:** Kultur Leioako entzungela (Leioa)

**Sarrera:** 12 euro.

The Piper's taberna (Algorta) | **Getxo**

Getxo Zuzenean ekimenaren 2015-2016 denboraldiko lehenengo saioa. Sarrera doan.

2015/11/06 - 17:00

**Bat, bi, hiru, festa! pailazo-ikuskizuna**  
**Arenezpi kalea (Algorta) | Getxo**  
Hezetasuna auzoko jaien egitarauaren barruan. Euskaraz. Sarrera doan.

2015/11/06 - 19:30

## Abesbatzen topaketa

**Kurtzio kultur etxea | Sopela**  
Musikaldia jaialdiaren barruan. Lagun Artea (Sopela), Itzalde (Okondo) eta Valle de Menako abesbatzek kantatuko dute. Sarrera: 3 euro.

2015/11/06 - 20:00

## San Martin eguneko kontzertua

**San Martin eliza (Algorta) | Getxo**  
Hezetasuna auzoko jaien egitarauaren barruan. Andres Isasi eta Ipar-alde abesbatza getxoararren emanaldia. Sarrera, doan.

2015/11/06 - 20:30

## Ganorabacks, Madskins eta Rat-Zinger taldeen kontzertua

**Iurgitxi kalea (Algorta) | Getxo**  
Hezetasuna auzoko jaien egitarauaren barruan. Sarrera, doan.

2015/11/06 - 21:00

## Timbuktu filma

**Areetako musika-eskola | Getxo**  
Cinema Paradiso zikloaren barruan. Jatorrizko bertsoan, gaztelaniazko azpituulua kaz. 12 urtetik gorakoentzat. Sarrera: 2,90 euro.

2015/11/07 - 2015/11/08 - egun osoan

## Getxoko Manga Jaialdia

**Xake plaza | Areeta**  
Egitaraua: [www.salondelcomicdgetxo.net](http://www.salondelcomicdgetxo.net)  
Sarrera: 3 euro.

2015/11/07 - 19:00

## ¿Que te pasa, Amy? helduentzako antzezlan

**Berango Antzokia | Berango**  
Oh My God! taldeak antzeztuta. Gaztelaniaz. Sarrera: 3 euro.

2015/11/07 - 19:00

## XXVI. Juanjo G. Mendibil Aurrekulari Txapelketa

**San Nikolas ikastola (Algorta) | Getxo**  
Hezetasuna auzoko jaien egitarauaren barruan. Gizonezkoek bakarrik parte hartuko dute. Doan.

**Kurtzio kultur etxea | Sopela**

Musikaldia jaialdiaren barruan. Estefan Madruk (biolina) eta Arrate Monasteriok (pianoa) joko dute. Sarrera: 3 euro.

2015/11/07 - 21:00

## Umore-gaua Kultur etxea | Urduliz

*No despiertes a la rana* saioa eskainiko du Sara EscuderoK. Gaztelaniaz. Sarrera: 6 euro.

2015/11/07 - 21:00

## Miguel Espejoren bakarrizketa

**Iurgitxi kalea (Algorta) | Getxo**  
Hezetasuna auzoko jaiak. Gaztelaniaz. Doan.

2015/11/07 - 23:00

## Erromeria, Urratsegaz

**Iurgitxi kalea (Algorta) | Getxo**  
Hezetasuna auzoko jaiak. Sarrera, doan.

2015/11/08 - 17:00

## Pinguinos de Madagascar familia-filma

**Areetako musika-eskola | Getxo**  
Guztientzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 2,10 euro.

2015/11/08 - 18:00

## Como entrenar a tu dragon 2 familia-filma

**Berango Antzokia | Berango**  
Guztientzat. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2015/11/09 - 10:00etatik aurrera

## XXXIV. Lapiko Txapelketa

**San Martin auzoa (Algorta) | Getxo**  
Hezetasuna auzoko jaiak. 13:30etik 14:30era aurkeztuko dira lapikoak. Sariak 17:30ean banatuko dira.

2015/11/10 - 19:30-21:00

## Argazki-kritikaren gaineko eskola

**Atxutegi Kalea, 15 (Astrabudua) | Erandio**  
Astrabuduko Fotoclub taldeak antolatuta. Gaztelaniaz. Doan.

2015/11/10 - 20:00

## La familia Belier filma Kultur Leioa | Leioa

Guztientzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 2,50 euro.

2015/11/11 - 20:00

## Los demonios del Eden dokumentala eta berbaldia

**Algortako kultur etxea | Getxo**  
Zentsura A1 jaialdia. Gaztelaniaz. Doan.

2

[www.hiruka.eus](http://www.hiruka.eus) atarian Komunitateko kide egin eta zuk zeuk sartu ahalko duzu ekitaldia Agenda atalean.

1

Bidali informazioa helbide elektronikoko honetara: [hiruka@hiruka.eus](mailto:hiruka@hiruka.eus)

Zure ekitaldiren bat hemen ikusi nahi baduzu, bi aukera dituzu:



Zabalera

**JOSEBA  
SANTXO URIARTE**  
Filologoa, idazlea, ikertzailea

«Oiloari oloa,  
astoari lastoa»  
horra hitz-jokoa!

**E**saera bikaina. Esamolde benetan ederra. Artelana. Esapide laburra: lau berba baino ez. Laburra bezain adierazkorra. Erritmoa ere badu, zazpina silabako perpaus eliptiko simetrikoki bi, komaren pausak indartuak. Semantikoki esakune argia da, beste ezagunago hauen esangura bertsukoa: 'Nori berea da zuzenbidea'. 'Bakoitzari berea, Jaungoikoaren legea'. 'Bakoitzak berea behar du'. Eta plus bat ere badauka esalege dotore horrek: paronimoek sortutako aliterazio edergarria eta errima-jokoaren hoskidetasun eufonikoa. Eta hori guztia base-txearen inguruko abereen irudi xumeak baliatuta batetik, eta abereon ohiko jatenak bestetik. Baserri giroko balio etnografiko erantsia.

Pentsa genezake erran zuhur antologiko hori gaur egungo pentsalari bikain baten burutik irten dela, edo bertsolari errime baten ahotik, edo idazle paregabe baten lumatik. Errealitatea, baina, guztiz bestelakoa da. Atsotitz hori norbaitek argitaratu zuen *Refranes y sentencias...* izeneko bilduman 1596an. Ez da, beraz, atzo goizeko erretraua. Ondorioz, geure euskara maila egunetik egunera hobetu guran gabiltzan euskaldunok, dela lan-mundurako prestatzeko, dela geure hizkuntzan erosoago eta egokiago komunikatu ahal izateko, dela literatura egiteko, badaukagu nora jo eta non ikertu. Klasikoen apologia egiten nabil hemen, bai horixe, uste baitut euskal klasikoen gordailua, bere apalean, iturri agorrezina dela euskararen bidean gora egiteko.

Halandaze, erdipurdiko euskaraz trakets eginda nahikotzen den euskaldunari txarrik desiratu barik, adoretu eta adoratu ditzagun euskaldun goranahikoak, euskarari mesede handiagoa egiten diotelakoan. Oiloari oloa, astoari lastoa. ◀

# Elikadura-burujabetza bultzatzen, artea ereiten



Ilustrazioak, argazkiak, ikus-entzunezkoak eta idatziak aurkezteko lehiaketara. © BIZILUR

**Bide Berriak lehiaketa** abian ipini dute Bizilur gobernuz kanpoko erakundeak eta EHNE-Bizkaia nekazarien sindikatuak; azaroaren 15era arte egongo da zabalik lanak aurkezteko epea. 5.500 euro banatuko dituzte saritan.

**B**ide Berriak lehiaketarako lanak aurkezteko epea azaroaren 15era arte zabalik egongo da; handik aurrera, bozkatzeko aukera edukiko dute herritarrek. Bertan parte hartzeko kategoriak lau dira: bideo laburrak, idatziak, argazkiak eta ilustrazioak. Denera, 5.500

euro banatuko dituzte saritan; baita Pariseko abenduko Cop21 goi-bileran La Via Campesinako delegazioko komunikazio-lantaldean parte hartzeko aukera eman ere. Hala, kategoria bakoitzean 700 euroko saria emango dute epaileek; herritarren bozken bitartez, 500 euroko sari bana ere ba-

natuko dute. Halaber, 700 eurogaz sarituko dute begirada feminista txertatzen duen lanik onena.

Bide Berriak lehiaketaren helburua da elikadura-burujabetzaren inguruko informazioa, gogoeta eta eztabaida sustatzea, adierazpen artistikoaren eta komunikazio-formatu berrien bidez. *Bide Berriak: elikadura burujabetza Euskal Herrian* dokumentalean oinarriturik dago; Bizilur gobernuz kanpoko erakundeak eta EHNE-Bizkaia nekazarien sindikatuak antolatu dute. ◀

info+: [bideberriak.eus/lehiaketa](http://bideberriak.eus/lehiaketa)

## Getxora ere iritsiko da Zentzura At! jaialdia

**B**ilbon ez ezik, beste udalerrri batzuetan ere egongo da zentsuraren aurkako jaialdiaren hamargarren edizioaz gozatzeko aukera; Getxok ekitaldi bi hartuko ditu. Hala, azaroaren 11n, eguaztena, *Los demonios del Eden* dokumentala proiektatuko dute Algortako kultur etxean, 20:00etan. Horren ostean, berbaldia egongo da: Alejandra Islas ikus-entzunezkoaren egileak eta Patricia Barcena CEAR-Euskadi erakundeke zuzendariak egingo dute berba. Mexikoko prostituzioari eta emakumeen salerosketaren gaineko dokumentala da. Egun bi geroago, hilaren 13an, kontzertu didaktikoa edukiko dute au-

### Egitaraua

#### Azaroak 11, eguaztena

20:00 *Los demonios del Eden* dokumentalaren emanaldia eta berbaldia, gaztelaniaz, Algortako kultur etxean. Doan.

#### Azaroak 13, barikua

12:30 Harrison Ivaz (Kanada) musikariaren eta Mr Jam Junior Band (Euskal Herria) taldearen kontzertu didaktikoa, Areetako musika-eskolan. Getxoko institutueta ikasleentzat, zentroek aurretiaz eskatuta.

info+: [www.zentzura-at.com](http://www.zentzura-at.com)

retiaz horren eskaera egin duten Getxoko institutueta ikasleek; Harrison Ivaz musikariak eta Mr Jam Junior Band taldeak joko dute. ◀

## Sara Escuderoren umore-bakarrizketak entzungai, zapatu gauean, Urdulizen

**U**more Gaua zapatuan, azaroak 7, bueltatuko da Urdulizera, Sara Escudero bakarlarik gaztelarragaz. Hitzordua 21:00etan ipini dute, kultur etxean; sarrerak 6 euroan egongo dira salgai. Escudero La Sexta telebista kateko *Zapeando* saioan dabil gaur egun; Urdulizen, berak idatzitako *No despiertes a la rana* saioa eskainiko du. Horren bitartez, irribarrea eta algara eragin gura die ikus-entzuleei bakarlarriak, baita «ihes egiten» lagundu ere. «Haztera eta euren sineskerak gauza guztien gainetik defendatzera behartuta dagoen pertsona ororen bi-zi-ikuspegi» oinarrituko da Escudero, antolatzaileek azaldu dutenez. ◀



Abestiak sarean entzun daitezke Ankenairen webgunean eta musika-plataforma (iTunes, Amazon, Spotify...) denetan.

## «Euskal musikan ohikoak ez diren estiloak batu ditut»

**Zenbait amore desberdin** izenburua dauka Ankenai abeslariak kaleratu duen bigarren diskoak.

KEPA UGARTE MARTIARENA ▶

Ane Vitoria Peñafiel da Ankenai kantariaren izena. Getxoztartutako donostiarren bigarren diskoa euskarazko hamar abestik eta ingelesez egindako beste batek osatzen dute. Getxoko Udalaren laguntza jaso du.

**Zelan eta noiz erabaki zenuen abeslari hastea?**

Txikitatik gustatu izan zait abestea; baina orain urte batzuetara arte, ez

dut aukerarik izan nire abestiak egiteko. Bi seme ditut; txikiak direnean arreta handia eskatzen dute haurrek. Nagusiagoak egin zirenean nire garaia zela ikusi nuen. Hala ere, ez da egun batetik bestera hartzen duzun erabaki bat, pixkanaka burura etortzen zaizun nahia baizik.

**Nondik dator Ankenai izena?**

Ez nuen nire benetako izena erabili nahi. Gainera, esan zidaten izen-musikal batek K letra eduki behar zuela; begiratzen hasi nintzen eta Kenai gustatu zitzaidan. Alaskan dagoen penintsula baten izena da. Hala ere, hartuta zegoen. Beraz, nire benetako izena baliatuz, aurretik A eta N letrak jartzea erabaki nuen. Nahasketa horretatik sortu zen Ankenai.

**Zeri abesten diozu?**

Disko honetan era desberdinetako amoreei abesten diet, ez soilik zure bikotekidearekiko senti dezakezun maitasuna; umeei, emakumearen askatasunari, Donostia nire hiriri, Euskal

*“Musikagintzaren egoera ez da ona; ni neu hasi naiz lan berria sare sozialetan zabaltzen”*

Herriari, amari... kantatzen diet. Zenbait amore desberdinen nahasketa da; maitasuna bera da diskoko abesti guztiek komunean daukatena. Izan ere, estiloari dagokionez, batean jazzean aritu naiz, bestean countryan... Eus-

karaz abestu nahi nuen, estilo desberdinak erabiliz.

**Estiloari baino, hizkuntzari eman diozu garrantzia abestietan.**

Euskal musikan beti nabarmendu izan dira folk-taldeak (Oskorri, Benito Lertxundi...) edo rock-banda gogorrak (Kortatu, Negu Gorriak...); eskema horretatik ateratzen den talde bakarrene-tarikoa Ken Zazpi izan daiteke. Jazza, bossa nova edota musika etnikoa euskaraz egiten duen talderik ez dago.

Zerbait desberdina egin nahi nuen; nire ustez, euskal musika ezin delako estilo zehatz batzuetara mugatu; euskal musikarekin jende guztiarengana iritsi nahi nuen. Gainera, rocka asko gustatu arren, nire ahotsa fina da, eta ez du hainbat estilotarako ematen.

Disko berrian, abesti bakarra dago ingelesez, 11 kantetatik; gure artean urte bat igaro zuen Kelly Amerikako nire lagunari eskainita dago. Berarekin ingelesez egiten dudanez, eta bestela berak ulertuko ez zuenez, ingelesez idatzi nuen. Lan berrirako, ordea, euskaratu egin nuen. Hala ere, Jose Luis Canal produktoreak ingelesez ere sartzeko esan zidan. Bietara dago.

**Zelan promozionatuko duzu diskoa?**

Urriaren 21ean plazaratu genuen *Zenbait amore desberdin*. Hala ere, musikagintzaren egoera ez da batere ona; ni neu hasi naiz sare sozialen bidez zabaltzen. Abenduaren hasieran Durangoko Liburu eta Disko Azokan egongo naiz; stand bat edukiko dut. Aukera ona izango da harremanak egiteko.

**Abeslari moduan noraino heldu gura duzu?**

*Illusion* diskoarekin, 2011n, harrera ona izan nuen. Esaterako, *Maitasuna* abestiaren bideoa jende askok ikusi zuen; dirudienez, gustatu zitzaien. Bigarren lan honekin ikusteke dago noraino helduko naizen. Dena dela, argi daukat musikan bakarrik aritzea ezinezkoa dela; ez du bizitzeko adina ematen. Hala ere, gustatuko litzaidake ahal dudan bitartean jarraitzea. ◀

info+: [www.ankenai.com](http://www.ankenai.com)

### HIRUKAko kide izan gura duzu?

Bi aukera dituzu:

**1** Proiektuan barrutik parte hartzeko kooperatibako Bazkide eginez:

**BAZKIDE ERABILTZALE izanda:**

- **Pertsona Juridikoak:** 1.000 € + Urteko kuota: 30 €
- **Norbanakoak:** 100 € + Urteko kuota: 30 €

**BAZKIDE LAGUNTZAILE izanda:**

- **Pertsona Juridikoak:** 200 € + Urteko kuota : 33 €
- **Norbanakoak:** 50 € + Urteko kuota : 33 €

**2** Egitasmoa bultzatzeko ekarpena eginez:

**HIRUKA LAGUNA**

- Urtero ekarpena eginez (gutxienez 35 €) proiektuaren bultzatzaile izango zara, hainbat onurez baliatuz.

**Bazkide Erabiltzailea**

**Bazkide Laguntzailea**

**Hiruka laguna**

Urtean 35€  Urtean \_\_\_\_\_ €

Izena              NA

Abizenak

Helbidea

Posta kodea    Herria

Herrialdea

E-posta

Kontu korrante zenbakia

Bete ondorengo datuak eta bidali postaz hona: Martikoena 16, 2. solairua. 48992 GETXO

**Bizilur erakundeko kideak** dira Miren Saiz Alzugarai hondarribiarra eta Maritxu Arroyo Cruz areetarra; Algortan eta Berangon bizi dira, hurrenez hurren. Elikadura-burujabetza sustatzeko asmoz, Bide Berriak adierazpen artistikoen lehiaketa antolatu du irabazi asmo bako erakundeak, EHNE-Bizkaia sindikatuagaz batera. Bestalde, Eusko Legebiltzarrak onartutako Emakume Nekazarrien Estatutu Legeagaz ez daude guztiz ados Saiz eta Cruz; «sakonera heldu barik, azalean geratu» dela uste dute.

## «Azalean geratu da Emakume Nekazarrien Estatutu Legea»



KEPA UGARTE MARTIARENA

### Zelan sortu zen Bide Berriak lehiaketa egiteko ideia?

**Maritxu Arroyo:** Orain dela urte eta erdi, gutxi gorabehera, *Bide berriak* izenburuko dokumentala egin genuen; elikadura-burujabetza zertan datzan modu erraz batean azaldu gura genuen. Gure ustez, harrera ona eduki zuen; Euskal Herriko leku askotan egon zen ikusgai. Gauzak horrela, aztertzen hasi ginen zelan hel gintezkeen mezu horregaz gazteen-gana; adierazpen artistiko ezberdinen lehiaketa bat bide emankorra izan zitekeela iruditu zitzaigun. Ilustrazioak, argazkiak, ikus-entzunezkoak eta idatziak aurkez daitezke, betiere gaia elikadura-burujabetza bada.

### Zein berezitasun daukate adierazpen artistikoek?

**M.A.:** Adierazpen artistikoek ideiak eta sentimenduak eragin ditzakete; kontzeptu politiko edo ideologiko bat azaltzeko helduleku bat baino gehiago aurki dezakezu artelanetan. Kontzeptu politikoez gainera, originaltasuna eta ideia ezberdinak transmititzeko bitartekoak behar ditu gizarteak; eta, batez ere, gazteek daukate hori bultzatzeko gaitasuna. Gehienbat, eurek erabiltzen dituzte sare sozialak; uneoro ikusten dituzu sakelako telefonoa eskuan.

Bestalde, EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateagaz hitzarmena daukagu, lehiaketa honen bitartez ikasleengana heltzeko; euren laguntzagaz aurrera ateratzen gabiltza Bide Berriak sari-keta. Izan ere, baserriarren munduak unibertsitatera ere hurbildu gura du. EHUko arduradunei ideia

ona iruditu zitzaizen adierazpen artistikoen bitartez elikadura-burujabetza bultzatuko zuen lehiaketa martxan ipintzea.

### Zelan parte har daiteke lehiaketan?

**Miren Saiz:** Interneten bidez izena eman beharra dago. Hasiera batean pentsatu genuen unibertsita-

“ Elikadura-burujabetza feminista ez bada, ez da ezer ere; gizartearen erdia kanpoan utziz gero, ez gara libre izango ”

tean dauden ikasleei zuzentzea bakarrik; baina, azkenean, irekia egitea erabaki genuen. Norbanakoek zein eragileek bidal ditzakete euren lanak; lehiaketaren webgunera ([www.bideberriak.eus/lehiaketa](http://www.bideberriak.eus/lehiaketa)) sartuta aurkituko dituzte oinarriak eta izen-emateko formularioa. Azkar batean bete daiteke; erraza da.

### Diru-sariez gainera, bestelakoak irabazteko aukera edukiko dute parte-hartzaileek...

**M.A.:** Lehiaketaren helburuetako bat da parte hartzen duten lagunei elikadura-burujabetzaren alde modu aktiboan lan egiteko gogoia piztea. Nazio Ba-

tuen Erakundeak (NBE) azaroaren 30etik abenduaren 11ra egingo du, Parisen, Klimari buruzko Biltzarrak (COP21); estatu ezberdinetako agintariak batuko dira bertan. Ohi den legez, mundu osoko gizarte zibila ordezkatzeko eragileak aurrez aurre edukiko dituzte mandatariek, Parisen bertan egingo den biltzar paraleloan. Baserriarrok ere esateko asko daukagu klima aldaketaren eta naturaren inguruan. Lehiaketako irabazleek parte hartuko dute nazioarteko La Via Campesina mugimenduko ordezkaritza bereziaren komunikazio-taldeagaz COP21ean, bai biltzar ofizialean, bai eragileen arteko hartu-emanak izaten diren topaketan.

### Begirada feminista hobeto islatzen duen lanak ere saria jasoko du, ezta?

**M.A.:** Elikadura-burujabetza feminista ez bada, ez da ezer ere; gizartearen erdia kanpoan uzten badugu, ez gara libre izango. Azken finean, elikadura-burujabetza proposamen bat da elikaduraren beraren bitartez gizarte honetan askeago izateko. Hori dela-eta, beren-beregi aipatu gura genituen oinarrietan begirada feminista daukaten lanak, eta horiek saritu; aipamen hori egiten ez baduzu, askotan jendeak ez du horrelako lanik aurkezten.

Gainera, La Via Campesina, eta, gertuago, Euskal Herriari, Etxalde Nekazaritza Iraunkorra mugimendua lan handia egiten dabilta emakume baserriarrek lekua eduki dezaten, eta euren aldarrikapenak entzun daitezken. Horregatik guztiagatik erabaki ge-





nuen begirada feminista hobekien islatzen dituzten lanek ere saria edukitzea.

#### **Baserrien mundua ezagutzen ez duen bati zelan azalduko zenikete elikadura-burujabetza zer den?**

**M.A.:** Kontu oso erraza da, eta oso zaila, aldi berean. Elikadura-burujabetzak esan gura du aukera daukagula erabakitzeke zer jaten dugun, baina ez bakarrik elikagai horiek bertokoak, osasuntsuak edo denboraldikoak diren; eskubide osoa daukagu deliberatzeko jakiak non eta zelan ekoizten diren, eta zein egoeratan bizi behar duten horiek ekoizten dituztenek. Ez da soilik baserriarren kontua; laborarien eta kontsumitzaileen artean erabaki behar dugu zer jaten dugun, eta elikagai horiek zelan ekoizten diren.

Gero eta autonomoagoak izan behar dugu, elikazterako orduan. Jakiak zelan saltzen diren ere eztabaidaren erdian dago: dirua eta beste interes batzuk baino, pertsonak izan behar dute baserriarren eta kontsumitzaileen hartu-emanen oinarria.

**M.S.:** Horixe da. Gakoa da birpentsatzea nola ekoizten, saltzen eta kontsumitzen diren elikagaiak; eta horren hausnarketa egiten dugunean, zer motatako harremanak sortzen diren gure artean. Hartu-eman horiek bidegabeak direnean, irauli egin behar ditugu, eta bide justuago bat topatu, denon artean.

#### **Zer ezaugarri dauzka egun daukagun ereduak?**

**M.A.:** Beste herrialde batzuetan bezala, Euskal Herrian dagoen eredu agro-industrialak kalteak eragin

ditu: batetik, esportatzeko gero eta gehiago ekoiztu behar dugula dio industria handiak. Aldi berean, jaki mota gutxiago behar direla esaten du; industriak berak erabakitzen du merkatuan egongo diren elikagaiak, kontsumitzaileen erabakitzeke ahalmena bazterrean utziz. Horren ondorioz, jarduera gero eta industrialago batera jo dute baserriarrek. Berba-

**“ Egoera iraultzen gabiltza. Posible da nekazaritza iraunkor eta duin bat sortzea, gure herritarrek elikatzeko ”**

rako, bankuetan kreditu gehiago eskatu behar izaten dituzte laborariak, nekazaritza- edo abeltzaintza-ustiategi handiagoak egiteko.

#### **Ekoizpena da sistema honen ardatza, ezta?**

**M.A.:** Batzuek pentsatuko zuten, baldintza horiekaz baserriar gutxiago egongo zirenez, bakoitzak diru gehiago irabaziko zuela. Hori ez da egia. Gero eta baserriar gutxiago dago, bai; baina dauden laborariak ez dira baldintza duinetan bizi. Ordu asko lan egin behar izaten dute; denen buruan dago: «baserriarren mundua oso gogorra da». Euskal Herriari dago-

kionez, %3ra ez gara heltzen; elikagai gehienak kanpotik ekartzen dira. Baserriar askok nekazaritza utzi eta hirietara jo dute, lan-baldintza duinago batzuen bila. Hala ere, egoera hori iraultzen gabiltza; nekazaritza iraunkor eta duin bat sortzea posible da, gure herritarrek elikatzeko. Horren adibide da gazte asko gerturatzen dabilela sindikatu eta elkarteetara, bide hori egiteko.

#### **Norbanakoek zer egin dezakete gaur egungo egoerari buelta emateko?**

**M.A.:** Egunero, gutxienez, hiru aukera izaten ditugu denok, egoera hori aldatu gura dugun ala ez erabakitzeke; hirutan (edo gehiagotan) jan ohi dugu egunean. Urteak 365 egun dauzkala kontuan hartzen badugu, atera kontuak! Beste alde batetik, jaten dugun hori nondik datorren eta salneurri hori zergatik daukan aztertu beharko genuke; supermerkatuan elikagai horren merkeak ikusten ditugunean, batez ere txirotutako herrialdeetako baserriarren soldatak eta baldintzak zelakoak diren hausnartu beharko genuke.

#### **Gaia zeharo aldatuz, zer uste duzue Eusko Legebiltzarrak urriaren 15ean onartu zuen Emakume Nekazarien Estatutu Legearen gainean?**

**M.A.:** Andreak dira urteetan Euskal Herriko txikizkako nekazaritza iraunkorra mantendu dutenak. Hortaz, garrantzitsua da baserriko emakumeen eskubideak eta presentzia babestuko dituen lege bat edukitzea. Hala ere, sakonera heldu barik, azalean geratu da Emakume Nekazarien Estatutu Legea.

Berbarako, ustiategien jabego partekatua bul-tzatzeko beharra dagoela diote, baina ez dute neurri konkreturik jarri hori lortzeko. Era berean, administrazio publikoek bete behar dituzten baldintzak ez badituzte konplitzen, horiei zigorren bat ezartzeko ere ez dute inolako neurririk ipini.

Behintzat, komunikabideen bitartez hasi da zabaltzen emakume baserriarrek eskubide batzuk behar dituztela; ezin dugu ahaztu Euskal Herrian eta mundu osoan laborari gehienak andrazkoak direla. Hala ere, Estatutuak muinera jo beharko luke, azalean geratu beharrean.

#### **Esan daiteke emakumeen presentzia areagotzeko sortu dutela legea, andreak egiten duten lana aitoritu beharrean?**

**M.S.:** Ez dut uste. Oraingo honetan aintzat hartu dituzte produktuak eraldatzeko eta komertzializatzeko lanak; emakumeek beti egin dituztenak, alegia. Horrek laguntzen du andreak ustiategien jabego partekatua lortzen eta euren lana ikustarazten. Baina, azkenean, hori lortzeko neurriak ez badituzu finkatzen, ez duzu bermatzen hori egingarria den ala ez.

**M.A.:** Jabego partekaturako legea bazegoen; ez da berria. Oso polita da Emakume Nekazari Estatutu Legea daukagula entzutea; baina, esaten dituenak betetzeko pausorik ez badu zehazten, edo benetako ahalegin politikorik ez badago, ez du gauza handirako balio.

#### **Zelan konpon edo osa daiteke Eusko Legebiltzarrak plazaratutako legea?**

**M.A.:** Gizarte guztiak presioa egin beharko luke gutxienez lege berri horretan aipatzen dituztenak bete ditzaten. Oinarrizko kontuak dira; ez dira batere iraultzaileak. ◀



## Iparralde, sokatiralarrien zain

Urduliztarrek astelehen, martitzen eta eguenetan dituzte entrenamenduak kiroldegian, 20:00etan. Sokatiran probatu gura dutenek handik pasatu, besterik ez dute egin behar, konpromiso barik.

**Iparralde sokatira-taldeak tradizioa** eta kirol grina bizirik mantentzen ditu Urdulizen. Giro onean eta umore beltzez, errefortzuen zain daude, lehiari sendo ekiteko.

**P**asa den urriaren 31n hasi zen aurtengo Euskadiko Goma Gaineko Sokatira Txapelketa, 4x4 modalitateko 320 kilokoan. Bertan, 12 talde lehiatu ziren, tartean Urdulizko Iparralde sokatira-taldea. Urribekostarrek ez zuten emaldi onik izan, eta tiraldi denetan kale egin zuten, bakar batean izan ezik. Sokarri B taldeagaz berdindu zuten. Horri esker, azkenak izan arren,

puntu bat batu zuten. Jose Luis Goirigolzarri Iparralderen entrenatzaileak argi egin du berba: «ez geneukan esperantza handirik, jende gutxi baikauda aurtan. Urdulizen, antzinako kirola da, baina orain jende gutxi gaude, eta horrelakoetan dena irteten da txarto».

### Itzulera zaila

Urdulizko sokatiraren urrezko garaiak aspaldikoak dira: 1997an, Eus-

kadiko hirugarren sailkatu ziren 560 kilokoan. Orduan, 8x8 modalitatean lehiatzeko behar beste mutil ziren.

Taldea 1992an sortu zuten, eta 1998an utzi zuten, beharrak, seme-alabek eta bestelako ardurek baldintzatu. Hala ere, 2012an, bueltatu egin ziren. Funtsean kide berberak, nahiz eta «pare bat fitxaje» ere egin zuten. Baina ordutik hona, «betikoak» daude.

### Kide gehiagoren zain

Aurtan, lanak eta sendiak utzitako apurretan, 7-8 agertzen ohi dira entrenamenduetan. Horregatik, 8x8 utzi, eta 4x4an lehiatzeari ekin diote. Dato-

rren azaroaren 14an, Sopelako Ugeraga kiroldegian jokatu da txapelketa bigarren kanporaketa, eta bertan erabakiko da zein talde pasatuko diren Ezpeletako finalera. Goirigolzarri espero du Sopelan taldea «apurtxo bat hobeto ibiltzea, baina ez askoz hobeto». Gainera, bertan zaleen berotasuna izango dute, emaitza txarrakaz epeldu den arren. Entrenatzaileak errazago ikusten du taldearentzat 300 kiloko lehia, azaroaren 28an Anoetan abiatuko dena.

Ostera, Iparraldekoen kezka nagusia jende berria lortzea da, herrian bertan kirol horri eutsi ahal izateko. ◀

## Trirunners eta Getxo Kirolak, batera korrikan

**D**aborduko 50 pertsona batzen dira Getxon, elkarregaz korrika egiteko taldeetan. Orain dela sei hilabete abiatu zuten ekimen hori, Trirunners Getxo Triatloi klubak antolatuta, Getxo Kirolak erakundeagaz batera. Trirunners Korrika Kluba deritzoten ekimen horrek lau talde ditu entrenamendu-mailatan. Interesa dutenek 40 euro ordaindu behar dituzte hilabete birik behin; Getxo Kirolen abonatua izatekotan, 36 euro. Trirunners Korrika Klubeko partaideek hainbat irteera eta ibilbide dituzte udalerriko bideetatik eta Fadurako atletismo-pistatik. Entrenamenduetan,

irakasle espezializatuek hainbat kontu erakutsiko diete: lasterketa-teknikak, luzaketak, eta lesio-arriskua murrizteko aholkuak, besteak beste.

Gainera, aldizka topaketak izango dituzte indar-entrenamenduak egiteko. Trirunnersek lau maila proposatu ditu egoera fisikoaren eta helburuen arabera: hastapeneko taldea astelehen eta eguaztenetan batzen da, 20:00etan. Beste denak (ertaina, aurreratua eta hobekuntza) martitzen eta eguenetan izaten dira, 20:15ean, 19:00etan eta 20:00etan, hurrenez hurren. ◀

info+: [runningclub@trirunners.com](mailto:runningclub@trirunners.com)

## Fitness eta muskulazio zerbitzuan, atea zabalik

**B**ariku honetan, azaroak 6, atea zabalduko ditu Getxo Kirolak udal erakundearen fitness- eta muskulazio-zerbitzuak.

Ekimena adin denetako emakumei dago zuzenduta, Getxo Kirolen abonatuak izan ala ez. Ate irekien egun hori doakoa da, eta Fadurako eta Gobelako gimnasioetan egingo da, ekipamendu horiek berritzeko programaren barruan.

### Berrikuntzak

Izan ere, pasa den udaberrian hasi ziren muskulazio-makina gehienak aldatzen. Bertara hurreratuko diren

emakumeek aukera izango dute entrenatzeko, eta adinaren eta baldintza fisikoen arabera beharretara egokitutako hainbat ariketa-taula ezagutzeko.

### Berbaldia

Halaber, zapatuan, azaroak 7, hitzaldia emango du Joseba Narbaiza espezialistak. Bizkarra zelan zaindu izango da gaia, eta hitzordua Fadurako ekitaldi-aretoan ipini dute, 17:30ean. Getxo Kirolak erakundeak zabaldu duenez, Narbaizak min ohikoenak zein diren zehaztuko du, eta horiek saihesteko jarrerak eta ariketak proposatuko ditu. Sarrera doakoa izango da. ◀

# Astrabudua, 25. urteurrenean



Jon Velasco izan da presidentea, 2008tik pasa den apirilera arte. © ASTRABUDUAKO F. T.

**P**asa den ekainean abiatu zuten San Lorentzon Astrabuduko Futbol Taldearen 25. urteurrena; klubaren zale askok kimuen eta benjaminen sariketaz gozatu zuten. Auzoko abuztuko jaietan, kirol-elkarteak presentzia handia izan zuen. Orduan hasitako elastikoen eta poloen salmenta aurrera doa, 25. urtemugako ospakizunak legez.

## Urtemugako ekitaldi berriak

Jorge Perezek zuzendutako klubak zabaldu du «beteranoen arteko partida oso berezia» prestatzen dabilela, urtea amaitu bitartean jokatuko dute, oraindino data zehatzik ez badute ere. Era berean, Astrabuduko futbol-taldera-

ko ereserkia konposatzeko lanean dira daborduko.

Ez da zaila ulertzea klubak zergatik dituen halako erroak auzoan. Astrabudua 10.500 bat auzotar ditu, eta klubaren diziplinean, 450 jokalaririk dabilta, 24 taldetan. Gainera, aurten 27 urte bete baditu ere, taldearen jatorria 1968an dago. Urte hartan eratu zen Astrabuduko San Lorenzo futbol-eskola, Estatu espainolean sortu zen lehena, hain zuzen ere. Halere, kluba inoiz baino gehiago hazi da 2007tik hona, Rafael Iglesias Arroyo kirol-koordinatzailearen garaian. Iglesias pasa den irailean zendu zen, eta Astrabuduko futbol-sendiak gorazarre hunkigarria eman zion, esker onez. ◀

## Iñaki Saez campuserako izen-ematea, zabalik

**G**abonetan, Iñaki Saez futbol-campusa egingo da Leioako Sarriena futbol-instalazioetan. Leioako kirol-elkarteak zabaldu duenez, izen-ematea zabalik dago daborduko, eta inskripzioa abenduaren 17ra arte egin ahal izango da. Leioako klubak 2008tik antolatzen du futboleko hobeto egiteko campus hori, eta Iñaki Saez Athleticen jokalaria eta entrenatzaile beraren laguntza izan du.

Aurten, 2002 eta 2011 bitartean jaiotako neska-mutilek parte hartu ahal izango dute, beti ere «futbolari gisa euren gaitasuna hobetu eta oporren amaiera futbologaz lotutako for-

makuntza eta jardura ludikoen bidez gozatu gura badute», Javier Landeta buru duen klubak zabaldu duenez. Ohi den legez, txikien formakuntzaz Sarriena prestatzaileak arduratuko dira. Eta ohikoa da Athleticen jokalariek bisitaren bat egitea.

Umeak txanda bitan banatuko dira: lehenengoa abenduaren 23, 24, 28, 29 eta 30ean izango da, eta bigarrena, urtarrilaren 4, 5, 7 eta 8an.

Iñaki Saez Gabonetako Campuseraren gaineko argibide denak erantzun-go ditu Bittor Llopis zuzendariak. ◀

info+: 675 533 528 / campusleioa@yahoo.es

Campusleioa.com



Campus 70 neska-mutilek estreinatzen zuten 2008an; 180 izan ziren, 2012an. © IÑAKI SAEZ CAMPUSA



**Taramay Urbegi liderra** da Abrako Errege Itsas Klubak antolatutako IV. Gizarte Sariko B modalitatean. Hiru estropaden ostean, David Fernandezek bela-ontziak abantaila hartu zion *Gaitero*-ri. Aste-akabu honetan jarraituko du demak. © ABRACO ERREGE ITSAS KLUBA

## Domekan Txirri-txiri martxa berria, Urdulizen

**D**omeka honetan, azaroak 8, Urdulizek bosgarren Txirri-txiri martxa edo ibilbide osasuntsua egingo du. Kirolzaleek goizeko 10:00etan izango dute hitzordua, Elortza plazan, udaletxearen aurrean. Urduliztik atera barrik, ibilaldira lasaia eta osasungarria egingo dute. Hurrenez hurren bisitatuko dituzte Errementariñe, Haurreskola, Antsonetako plaza, Artadi auzunea eta Goieta kalea, udaletxera bueltatu aurretik. Denera, ibilbidea 2.570 metrokoa izango da, eta ordu erdi inguru emango ei dute ibilaldian. Amaitzean, hamaiketako ipiniko dute, eta umeei opari bana emango diete. ◀

## Eneritz Borinaga, boxeolari onena Valladoliden

**P**asa den urriaren 23an, Eneritz Borinaga boxeolari uribekostarrak irabazi zuen aurten abiatu den Valladolideko Sariketa. Borinagak mendean hartu zuen 51 kiloko Valeria Saldaña Espainiako txapelketa. Borrokaldi osoan (minutu biko lau round), Mampoy Gym taldeko uribekostarra nagusi izan zen. Borinagak distantzia landu, eta Saldañari kontaktua zaildu zion, Kordobakoaren ohiko borroka-modua apurtuz. Plentziarrak bigarren eta hirugarren roundak lortu zituen arren, puntuka eroan zuen boxeo-borrokaldia. Borinaga Barrikan jaio zen 1988an, eta Plentzian bizi da. ◀

# Baque-Camposeko hiru, profesionaletara



Baque-Camposen denboraldi bakarra egin du Gotzon Udondok. © BAQUE-CAMPOS

**Eskualdeko hainbat udalen** txirrindularitza-proiektua aurrera doa: Elkar Kirolak eskolaren 23 azpikoen taldeak ahalbidetu du hiru txirrindulari profesionaletara heltzea.

ragan irailaren 15ean, Ander Plazaola txirrindulari algortarrak oina ointokitik atera, eta bizikletatik jaitsi zen, Altasun. Ekintza horregaz batera, Euskadi Fundazioaren txirrindulariak afizionatu-mailako bere ibilbidea amaitutzat eman zuen, talde profesionaletara igotzeko ezintasunaren ondorioz. Gaur egun, Edinburgon egongo da, HIRUKAko irakurleei iragarri zenez.

## Berangoko profesionala

Bitartean, Gotzon Udondo Santamaria txirrindulari berangoztarrak salto egin du kirol profesionalera. Baque-Campos taldeko kidea pasatuko da Jon Odriozolak gidatzen duen Murias talde profesional kontinentalera, eta ez da baka-

rrik joango. Beragaz, Alex Aranburu ezkiotarrak ere eragingo die pedalei. Bitartean, Julen Amezketa lizarratarak Italiako bidea hartu du, bertako Team Southeast taldeak urte birako fitxatu ostean. Aranburu eta Amezke-

ta Baque-Camposeko kideak izan dira. Udondok abenduan beteko ditu 22 urte. Berango, Erandio eta Leioako udalek sustatzen duten Elkar Kirolak txirrindularitza-eskoletan prestatu da, eta aurten lehiatu da lehenengo aldiz Baque-Campos taldean, 23 urte azpiko kategorian. Maila horretan, Euskadiko txapeldunordea izan da. Aurreko urte bietan, ordea, Seguros Bilbaoren maillota jantzi zuen berangoztarrak.

Aranburuk hainbat hilabete daroa Odriozolaren agindupean, *stagiare* gisa estreinatu baitzen Getxoko zirkuituan. Era berean, Muriasegaz lehiatu zen Frantziako Tour de Vendee-n eta Paris-Bourges klasikan. Aurten, hiru etapa irabazi ditu Baque-Camposegaz Oiartzunen, Oñatin eta Palentzian. Gainera, hango biran 7. geratu zen. Ezkio-Itsasokoa Espainiako txapelduna izan zen gazte-mailan, 2013an. Iaz, Ampo taldea defendatu zuen, aurten Baque-Camposek ekarri du.

## Erreleboa

Ez da lehenengo aldia Elkar Kirolak eskolaren 23 azpiko taldeak txirrindulariak gora heltzea lortzen duena. Erandio, Berango eta Leioaren ekime-

na, orain dela hiru urte, Baque-Camposez arduratu zenetik, txirrindulari hauek egin dute jauzia: Mario Gonzalez, Chava Angulo, Carlos Jimenez, Peio Goikoetxea, Sebastian Mascaro eta Diego Leon Cuervo.

Kontuak hala, Baque-Campos 23 azpikoen taldea zazpi txirrindularigaz indartuko da 2016rako, tartean gazte-mailako Palacios-Elkar Kirolak taldeko Iñigo Landaluze leioztarragaz eta Iker Elortegigaz. Horiekaz batera taldekide berriak izango dira Angel Fuente, Marcos Gonzalez, Elias Ortiz, Oskar Urkiola eta Ismael Pascua. ◀



## Saioa Gil Ranero

Baque-Campos taldeko txirrindulari eta Espainiako txapeldunak mendean du ziklo-kros kadetea. Pasa den urriaren 12tik hona, proba denak irabazi ditu: Urduña, Medina de Pomar, Villarcayo, Karrantza, Lauadio eta Muskiz. © ELKAR KIROLAK

## Proiektu liluragarria 2016rako

Alex Garcia Baque-Camposeko zuzendaria pozik dago datorren urteko taldeagaz: «proiektu berria eta liluragarria da. Indarra eman dio gutako hiru datorren urtean profesionalak izateak. Txirrindulari onak galduko ditugu, baina ondo sendotuko gara. Hazi, eta euren lekua topatu behar dute txirin-

dulariek», azaldu du. Alex Garcia badaki zertaz dabilen, bera Elkar Kirolak-ek dituen kategoria denetatik pasa da-eta. Javier Garcia zuzendari nagusiak uste du 2016koa hobea izango dela, aurtengo denboraldia baino: «2015ean hasiera zailaren ostean, norabidea zuzendu genuen, eta oso era duinean amaitu genuen». ◀



Erandioko Txirrindularien Elkartek 25. urteurrenerako antolatu zuen elkartasun-ekimena.

## Txirrindulariek batutako 17.157 euro, Stop Sanfilipporentzat

Erandioko Txirrindularien Elkar-teak 17.157 euroko txeketa eman zion Stop Sanfilippo Fundazioari, pasa den urriaren 29an, Erandio-ko udaletxean egindako agerraldian. Joseba Atxutegi txirrindularien presidentek azaldu zuenez, emandako dirua da pasa den uztailaren 18an elkartek Bizkaiko Zubia isiotzeko

ekimenean lortutako etekina. Egun hartan, 1.200 lagunek eragin zieten pedalei, zubia bera eta Sanfilippo gaitza pairatzen duten umeen eta euren senideen aurpegiak koloreztatzeko. Naiara Garcia de Andoinek batu zuen txeketa, sindromea ikertzeko beketan inbertituko dute: «guztion artean pedala sakatuz, lortuko dugu». ◀

**saiazgetaria**  
HOTELA  
Roke Deuna 25  
Getaria  
T. 943.140.143  
www.siazgetaria.com



Egunero, 24 orduz  
[www.hiruka.eus](http://www.hiruka.eus)



## Zorion agurrak

Urtebetetze, ezkontza zein jaiotza... Bidali zeurea!  
publi@hiruka.eus · 94 491 13 37



**LIHER**  
LARRABASTERRA  
*Etxekoan partez*

Zorionak, Liher! 8 urteak ospatzeko festa ederra egingo dugu! Besarkada bero bat zure ama, aita eta anaiaren partez. Monika, Imanol eta Aretx.



**ISKANDER**  
URDULIZ  
*Kuadrillaren partez*

Zorionak, Isk! Urdulizko bateria-jolerik jatorrenak 29 urte beteko ditu, eta inoiz baino gazte eta guapo daukagu! Musu bat!



**MADDALEN**  
SOPELA  
*Maiate zaituztenen partez*

Zorionak Maddalen! Zurekin ospatzea poztasuna da. Mosu erraldoi bat lagunaren partez. Disfrutatu zure egunaz!



**MARIA**  
GETXO  
*Lagunen partez*

Zorionak, Maritxu! Hamarkada berri honetan oso zorionsu izango zara eta une horiek elkarrekin biziko ditugu. Atera zurito batzuk eta topa dezagun!



## Horoskopoa



**Ura**  
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Euskal Herri umela faltan sumatu baduzu, lasai egon zaitzake, gura beste euri izango duzu datozen asteotan!



**Otsoa**  
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Festa gogoa zeneukanez, di-da prestatu dituzte auzoko jai herrikoiak, zuretzat eta lagunentzat. Orain on do pasatzea besterik ez duzu!



**Adarra**  
(Otsailak 19-Martxoak 20)

Agian, kirola moldatu beharko duzu aroaren arabera, baina segi egizu kirola praktikatzeko, argiagotzeko pentsatuko duzu-eta.zu!



**Aitzurra**  
(Martxoak 21-Apirilak 19)

On doko auzokideen umeek esnatuko zaituzte, euren negarrakaz. Zelan da posible haiek ondoan egonda ez entzutea?



**Hostoa**  
(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Lurra ondo aztertuz gero, txanponen bat topatuko duzu, ahalegin handia egin barik. Halere, kontuz ibili farola maltzurerekin.



**Eguzkia**  
(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Doministikua ibiltzea aro honetan ez da ohikoena. Gaur ez bazaizu pasatu, joan medikuarengana, ea alergiaren bat den jakitera.



**Garia**  
(Ekainak 19-Uztailak 18)

Azken boladan, ez zara lehen bezain trebe sentitzen. Saia zaitzez telebista gutxiago ikusten eta kirol gehiago egiten.



**Lastoa**  
(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Ohi den legez, banan-banan itzuliko dizkizu gainerrakoen txanponak, baina oraingo honetan irribarre polita ere oparituko dizu.



**Iratzea**  
(Abuztuak 18-Irailak 16)

Lasaitasuna zure esku egongo da, lasaitasunaren alde eginez gero. Baina ostean, ez kexatu aspertu egiten zarelako!



**Meta**  
(Irailak 17-Urriak 16)

Telemarketin-enpresako langile saiatu horri ez diote behar beste ordaintzen! Gutxienez, bere nagusien asmoa bada zuri *kaparrada* ematea.



**Hazia**  
(Urriak 17-Azaroak 15)

Zuretzat ez den ohar bat helduko zaizu. Ahalegin handia eginez gero, jakingo duzu norentzat eta zertarako zen.



**Negua**  
(Azaroak 16-Abenduak 20)

Istorioren amaierara heltzean, gutxienekoa izango da zein izan zen pasarte ona, eta zein, txarra. Akabukora heltzeak zapore gazi-gozoa utziko dizu.

### Soluzioa

2	9	6	7	8	5	3	1	7
8	5	3	1	6	7	9	2	4
1	7	4	9	2	3	8	6	5
6	8	9	2	5	4	7	3	1
7	4	1	6	3	8	5	9	2
5	3	2	7	1	9	4	8	6
9	2	7	3	4	6	1	5	8
3	6	8	5	7	1	2	4	9
4	1	5	8	9	2	6	7	3

## Lehiaketa. Non da?

Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu lehiaketa-atal honetako protagonista. **NON** eta **ZERI** ateratakoa den badakizu?



Musiketari zikloa

**Duo Gisbranco-ren**

**kontzerturako 5 sarrera bikoitz dauzkagu**

Azaroak 15, domeka, 20:00; BBK Aretoa (Bilbo)

Producciones Serranoren ekimenez, Duo Gisbranco taldeak eskainiko duen emanaldirako sarrerak zozkatuko ditugu. Gura badituzu, hilaren 10a baino lehenago, helarazi erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: [hiruka@hiruka.eus](mailto:hiruka@hiruka.eus) edo 944 911 337

## Sudokua

			2			5		
								3
8			9	4			2	
9	8		6			2	3	
				3				7
		7					8	
				2		4		
4		6	7		1			8
7	1							

Gogoan har egizu 1etik 9ra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe,ilara eta azpilaiki bakoitzean.



## Animaliak osatzen 16 urte, fauna basatia artatzen

**Gorlizen, Fauna Basatia** Sendatzeko Bizkaiko Zentroak 2.013 animalia jaso ditu 2014ko urtarriletik hona. Sendatutako aztoze bat eta 8 urubi askatu zituzten urriaren 22an, Elena Unzueta foru diputatua bertan zela.

IKER RINCON MORENO



**F**auna basatia ugaria eta askotarikoa da Euskal Herrian, baita Bizkaian ere. Besteak beste, igarabak, lepahoriak, muxar grisak, amuarriak, okil beltzak, oreinak, basurdeak, urubiak eta aztozeak aurki ditzakegu gure inguruetan. Hala ere, horietatik ugari zaurituta ala hilda aurkitzen dituzte sarri gure baso eta hondartzetan; hori dela-eta, Bizkaiko Foru Aldundiak fauna basatia zaintzeko zentroa martxan ipini zuen 1999ko uztailean, Gorlizko foru basetxearen egoitzan. Naturan bertan arriskuan dauden espezieen ospitaleratze-beharrei erantzuten die Gorlizko zerbitzuak. Horretarako, sailak eta azpiegiturak egokitu eta teknologia eguneratu dituzte. Animaliak osatzeko, eta, behar izanez gero, animaliei errehabilitazioa egiteko, egin zuten aurreko guztia. Dena dela, hori baino gehiago ere egiten dute zentroan. Izan ere, fauna basatia zaintzeko estrategia orokorraren barruan, proiektu zabalagoak abitu dituzte, edo horretarako bidean daude.

Gaur egun, Gorlizko zentroak animalia horiek hartu, zaindu eta sendatu ezean, seguruenik ez lukete aurrera egingo, eta hil egingo lirake. Animaliak osatu ostean, ingurune egokian animalia horiek askatzea da zentroaren azken helburua. Horiek askatzeko, baina, gutxienez baldintzak bete behar dira, animaliek aurrera egiterik izan dezaten. Gaine-

ra, animalientzat ezin da kaltegarria izan ekosistemara berriro ere sartzea.

### **2.013 animalia jaso dituzte 2014tik hona**

Fauna Basatia Sendatzeko Bizkaiko Zentroak 2.013 animalia jaso ditu 2014ko urtarriletik gaur egunera

### **Naturan bertan arriskuan dauden espezieen ospitaleratze-beharrei erantzuten die Gorlizko zentroak, besteak beste**

arte. Bertan, animaliak artatu, zenbait lesio, gaixotasun eta zauri sendatu dizkiete, eta, behar badute, errehabilitazioa ere egiten diete, ondoren askatu ahal izateko. Elena Unzueta Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko foru diputatuak zentroaren zeregina nabarmendu du. Izan ere, zentroak 462 espeziatako 12.796 animalia artatu ditu guztira, bere jardura hasi zuenetik. Hori horrela, Euskal Herriko eta Bizkaiko biodibertsitatea jagoteko baliabideetako bat da Gorlizko zentroa.

Jakintza lantzeko eta ikerketarako lekua ere bada. Egundoko informazio-iturria eskaintzen du

fauna basatiaren egoeraren gainean. Hori dela-eta, hainbat unibertsitateguz eta ikerketa-zentroguz dituen harremanak «gero eta garrantzitsuagoak» direla azaldu dute Bizkaiko Foru Aldunditik. Horrez gainera, jakinarazi dutenez, zentro horretan lan egiten duen taldeak ahalegin handiak egiten ditu ikerketa-proiektuetan «modu aktiboan» parte hartzeko. Horren adibide garbia dugu zentro horretan abian jarritako apoarmatu istilzalearen ugalketa-kontrolaren inguruko ikerketa.

Era berean, prestakuntza-eremua ere bada. Master eta doktoregoakaz lankidetzan dihardu, eta boluntarioak zein praktikaldietarako beharginak onartzen ditu. Horren harira, Unzuetak jakinarazi du legegintzaldi honetan indartu gura duten alderdietako bat dela hori: «ahal denik eta gehien aprobe txatu nahi dugu zentroak ikertzeko eta hezteko duen potentziala».

### **Zentroaren funtzionamendua**

Fauna Basatia Sendatzeko Bizkaiko Zentroak animalien bat hartzen duenean, bertara heldu bezain laster, lehenengo eta behin, sarrera-erregistroa eman, albaitaritzako diagnostiko bat egin eta beharrezko fitxa prestatzen dute. Ostean, animalien espeziea kontuan hartuta, jarduketako protokolo bat ala beste ezartzen da, ondoren animalia hori artatzeko bide zehatza hartzeko.

Gero, esplorazio klinikoa egiten diote animalia-ri, eta beharrezko laginak hartzen dituzte, ondoren aztertu ahal izateko, diagnostikoaren lan osagarritzat. Espeziearen arabera, bestelako laginak ere har ditzakete, «kontrol sanitario edo epidemiologikoari begira, edo kontrol genetikoari begira», azaldu dute.



ARGAZKIAK: © BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Azken proba horiek Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoaren barruan sartuta dauden edo populazio urria duten espezieen kasuetan egiten dituzte, berbarako: miru gorria, bisoi europarra eta ugatza.

### Jarduketa-programa

Zauriturik edo gaixorik ailegaten zaizkion animaliak osatzeaz gainera, osasun-zaintzarako programak ere garatzen ditu Gornizko zentroak, fauna basatiaren kontrol epidemiologikoa egiteko Osasun Zainketarako Nazio Planaren barruan, horretan ere parte hartzen du-eta. Era berean, kontserbazio-programak ere aurrera errotan ditu, zentrorra sartzen diren espezie mehatxatuakaz. Unibertsitate eta nazioarteko zein espainiar Estatuko beste erakunde batzuek lankidetzan dituzten ikerlanei esker, bideratzen du hori guztia.

Beste alde batetik, animalia-esperimentazioaren arloko lanak ere egiten dituzte zentroan; esaterako, apoarmatu istilzalearen ugalketa-kontrola. Gainera, hezkuntza-arloko jarduketak garatzen dituzte unibertsitate eta bestelako erakunde batzuek dituen lankidetzaren bitarteko, berbarako: AMBAR elkarteagaz eta Doñanako Estazio Biologikoagaz egin dute lan.

### Zortzi urubi eta aztore bat, osatuta

Joan den urriaren 22an, Eatik ekarritako aztore bat askatu zuten, irailaren 3an Fauna Basatia Sendatzeko Bizkaiko Zentrorra eroan zutena. Hegan egitea galarazten zion traumatismo bat zuen, eta beharrezko esplorazio erradiologikoa egin ostean, egiazta zuten haustura bat zeukala ukitutako hegalarren eskumako kubituan. Horrenbestez, ebakuntza egin zioten, eta albaitaritzako tratamendua jaso eta gero,

instalazioetan hegan egiteko eta muskuluak indartzeko errehabilitazioa egin zitzaion. Adituek azaldu dutenez, aztorea «bitxizat» hartzen den espeziea da Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoan. Hori dela eta, «oso kontuan hartzeko moduko animalia da gure lurraldean», ohartarazi dute. Egun berean, aztoreaz gainera, zortzi urubi ere askatu zituzten. Horietako lauri ebakuntza egin zioten zentroan, zenbait lesio sendatzeko; gainontzekoak, txikiak zirenean jaso zituzten, oso ahul zeudela. Urubia ere babestuta dagoen espeziea da, baina ez dago desagertzeko arriskuan.

Oro har, argitara emandako datuen arabera, batetik, 2014. urtean 151 espezieetako 1.145 animalia jaso

### Hartutako animalia guztien %60,7 hilik edo erantzuteko gaitasun barik heldu ziren zentrorra, 2014an; hau da, 695 animalia

zituzten Fauna Basatia Sendatzeko Bizkaiko Zentrorra. Horietatik, 695 hilik edo erantzuteko gaitasun barik ailegatu ziren; hau da, hartutako animalia guztien %60,7. Bestetik, urte hartan, albaitaritzako tratamenduak eman zizkieten 450 animaliarri, eta eutanasia egin behar izan zioten 32ri (hartu zituztenen %7,11). Erabaki hori hartzeko, larritasun handikoak izan behar dute animalien zauriek eta lesioek; izan ere, aztertu ostean, horrelako egoeretan, ezin izaten da animaliak berreskuratu. ◀

harremanetarako: 94 677 48 52 / 94 446 52 97  
helbidea: Foru basetxea, 48630 (Gorniz)



### Zentroaren helburuak

- Jasotzen diren animaliak osatu eta euren ingurumenean askatu; arreta berezia eskaintzen zaie galzorian daudenei.
- Bertaritzen dituzten animalia guztien erregistro osoa izan. Bertan datu ugari jaso ohi da: bertaratzearren arazoak, ondoren emandako tratamendua, erabilera, habitataren baldintzak animaliak askatzeko, etab.
- Askatutako animaliak monitorizatu. Espezieen identifikazio zientifikoaz gainera, hainbat jarduera zehatz egiten dira zentroan egindako esku-hartzeak zer eraginkortasun duen jakiteko.
- Katalogatutako espezieen kudeaketa-planen egikaritzan sartu.
- Beste sendatze-zentro batzuek elkarlanean jardun, informazioa eta ikerketarako material biologikoa trukatu.
- Beste ikerketa-, laguntza- eta lankidetzeta-programetan parte hartu.
- Ingurumen-heziketarako programetan parte hartu: pertsonen, eta bereziki gazteen interesa sorrarazi, gure gizartea fauna basatia zaintzearen alde sensibilizatu eta euren parte-hartzea bultzatu.

### Zentroaren sailak

- Harrera-gela, osasun-azterketarako eta sendatze-gela eta operazio-gela.
- Nekropsia-gela eta laborategia.
- Hegazti eta ugaztunen zentro ospitaleratze-gela.
- Hegaztien eta harrapakinen muskulazioa eta ikastaldia.
- Ukuilu-haztegia.
- Bertako langileentzako bulegoa eta zerbitzuak.

Lehen/Orain

## Plentzia



Erretratua

## Manu Aresti Larrauri

Algortako jubilatua ez erretiratu, kultura-saltsetan aritua.

**Kultura eta elkartasunean** topatu ditu bizitzeko modu eta grina 59 urteko marinel ohiak. «Bizitza osoan algortarra» izan arren, Getxo udalerrira aldarrikatu du.

**O**ntzitik, 1980an lurreratu zen Manu Aresti: «Orain nire emaztea dena ezagutu nuen, eta lehorrean geratu nintzen». Peoi-lanetan jardun ostean, Remolcadores Ibaizabalen sartu zen, eta han jubilatua ere. «Itsasoan egin ezin izan ditudan gauzetan» ematen du denbora orain: «Getxoko kulturen eta elkartasun mugimenduetan parte hartzen eta jendeari kultura, poesia, literatura, pintura edo argazkilaritzako ekimenak eskaintzen». Pablo Ibar ere babesten du, Urtain boxeolari mitikoaren ilobari heriotz-zigorra ezarri baitzioten aspaldi. Maila sozialean, Hepatitis C pairatzen duten gaixoak sostengatu ditu azken boladan, eta iaztik, Getxoko HAPOa berrikusteko lantaldean ibili da. Hirigintza-gaietan «deskolokatuta» egon arren, jakitun da «arazo handia» dagoela hor, «gazte asko, gure seme-alabak, lan barik dardelako, etxe batera sartu edo erosi ezin dutelako, eta, bitartean, udalerrian

etxebizitza asko hutsik dagoelako, udalerrian 3.000 direlakoan nago».

Hala ere, Manu Aresti ezagunagoa da kultura-munduan. Internetez zein aurrez aurre asko dira parte hartu dituen foroak: Algortako Kasinoa, Aldai patronatua, GetxoBlog, Elias Ametzagaren jardunaldi eta sariak, Guaitos,

**“Arazo handia dugu: gazte asko lan barik dago, etxe batera sartu edo erosi ezinik”**

Amumak, Getxoko Eguazten Poetikoak eta abar. Pozik dago, behingoz, poesia lantzen delako, «gaur egun ez baita irakurtzen euskaraz, ezta gaztelaniaz ere». Gabriel Arestiren iloba izanda, «oso harro» sentitzen da eta osabaren lana aldarrikatzen du, bere ekarpen sozial, politiko eta humanistikoagatik.



Erakunde laguntzaileak:



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua